



**Zuntz optikoa, frontoiko konponketak eta trail estazioa Uharteko aurrekontuetan / 7**

**Irañetako ur biltegi zahar eta txikia berri eta handiagoagatik ordezkatzuko dute aurten / 11**

**Arruazuko Udala eta Lizarragako Kontzejua ostatuak alokatu nahian dabilta / 7-9**

**Nafarroako Irristaketa Pista Txapelketatik 10 domina iritsi dira Sakanara / 10**

**Joanes Bakaikoak 1. mailako Buruz Burukoan debutatuko du: larunbatean Victor du aurkari / 16**

**Iortia antzerki tailerrak 'Pero que me estas contando' antzezlanana mustuko du apirilaren 27an / 21**

**UDABERRIKO OPORRETARA GOAZ!**

Maiatzaren 3an izanen da hurrengo Guaixea

Ongi izan!



**... eta aurrera!**


**XXX. URTEURRENA**

Sakanako Ibilaldiak 30 urte beteko ditu apirilaren 27an eta atzera begirada egin dugu Iratxokoeekin / 2-4



**Liburuen eguna**

Apirilaren 23rako hainbat ekimen antolatu dira Sakanan / 21







Mendizale taldea Sakanako Ibilaldiaren 25. urteurrenean Sakanako paraje ederrez gozaten. ARTXIBOA

#### Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Irurtzungo Iratxon bildu gara Manolo Moreno, Ramon Dorron-soro, Alicia Navarro eta Doris Vicente elkarteko kideekin. Aurtan Sakanako Ibilaldiak 30 urte beteko ditu eta data hori ez da nolana hikoia. Egun Euskal Herriaren mendia ibilbide luzeen artean errekonozimendu handiena dutenen artean dago Sakanako Ibilaldia. Ibilaldi Luzea Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan eta Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Zirkuituan sartua dago. Horrela, atzera egin eta urte hauetan gertatutakoak erreparatzeko aukera paregabea iruditu zaigu aurtengoa, eta iaz zendutako Pello Alzuetaren lana gogoratzeko baita ere. Izan ere, Alzuetak Sakanako Ibilaldiaren arduradun nagusia izan zen urte luze eta aurtan bere falta izugarri nabaritu dute Iratxon. Baina aurrera egin eta omenalditxo egin diote taldekideek, aurtengo Sakanako Ibilaldiko kartelean bere irudia txertatuz.

#### Sorrerak

1989 urtean egin zen lehenengoz Martxa Handia, orduan horrela

# Sakanako Ibilaldiak 30 urte

Sakanako Ibilaldiak 30 urte borobil beteko ditu aurtan. Apirilaren 27an izanen da eta hiru ibilaldi daude aukeran: Ibilaldi Luzea, Ibilaldi Motza eta Ibilaldi Txikia. Pello Alzuetaren falta sentitzen da, baina Iratxoko makineriak aurrera jarraitzen du

deitzen baitzioten. "Iratxokoak Sakanako Mendizaleak taldekoak izan gara beti, eta gu eta Sakanako Mendizaleak taldeko batzuk bildu ginen Martxa Handia egiteko, 12-15 lagun inguru, ingurukoak. Txurregira igo, Satrustegiko mendizerra gurutzatu, Irañetako portura atera eta Uharte Arakilgo atakatik jaitsi ginen herrira -orduan San Donato basilikatik ez ginen pasatzen-, gero Aralarko San Migelera igo, Atan barrera Madotzera joan, ondoren Larrazpilera edo Golarazko gainera igo eta

Etxeberrira jaisteko. Eta handik Irurtzunera. 43-44 km inguru izango zituen bueltak" gogoratu du Manolo Morenok.

#### 2.000 urtea, gakoa

Ibilbidea luzea eta gogorra zen, eta hainbat urte eman zituzten horrela, Sakanako Martxa Handia izenarekin. Aurrerago, urte batean Sakanako Martxa Handia eta beste urte batean Martxa Txikia egitea erabaki zuten. "Batzuk kexatzen diren luzezia zela, eta horregatik hasi ginen Martxa Txikia egiten, Irurtzun ingurue-

tan. Baina Martxa Txikira jende gutxiago etortzen zen" dio Morenok.

Horrela, 2.000. urtean bi erabaki garrantzitsu hartu zituzten Iratxon: urtero Sakanako Martxa Handia egitea eta martxa hori oraindik ere luzeagoa egitea, eta horretaz gain, aurrera pausu bat eman eta urte horretatik aurrera Sakanako Ibilaldi Handia izango zena iragartzea, propaganda egitea. "Nik gogoratzen dut pentsatu nuela: Martxa Handira betikoak badoaz, gogorra delako, luzeago jartzen badugu

nola etorriko da jende gehiago? Eta begira, urte horretan 100 pertsona etorri ziren, eta ordutik aurrera, urtetik urtera gehiago. Jendea enteratzen zenean gurea martxa gogorra zela, geroz eta jende gehiago apuntatzen zen" dio Doris Vicentek.

2.000. urteko Sakanako Ibilaldi Handirako kartelak eta diptikoak Euskal Herriko mendi klub guztietara bidali zituzten. Eta bertan aritzeko izena ematea jarri zuten, lehenengoz. Ibilbidea ia berdina zen, baina San Donato ermita sartu zuten ibilbidean, ordura arte Sakanako Martxa Handia ez baitzen ermitaraino heltzen. "Jendeak oso erantzun ona eman zuten, eta hasieratik kanpoko jendea hasi zen etortzen. 100 pertsona etorri ziren, eta harritu ginen. Oso harrera ona izan zuen hasieratik" gaineratu du Doris Vicentek.

2002an beste aldaketa bat egin zuten Iratxokoek. Bukaera alde-ara Ergako Trinitatearen igoera gehitu zuten. "2002an 200 mendizale etorri ziren, eta hortik aurrera goraka. Izan ere, Sakanako Ibilaldia egitea oraindik ere desafioa da" dio Manolo Morenok.

 <b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Isolamendu nukleo indartsua	 Beirak lehorrean jarrita
			 Etxe pasiboetarako egokia
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			





Doris Vicente, Manolo Moreno, Alicia Navarro eta Ramon Dorronsoro Iratxo elkarteko kideekin 30 urte egin dugu atzera.

### Sakanako Ibilaldia, desafioa

Sakanako Ibilaldia Nafarroan beterranoena ez bada, beterranoetakoa izango da, eta Euskal Herrian oso ezaguna. "Nafarroako mendi ibilaldi garrantzitsuen da, bere gogortasun eta edertasunarengatik. Alde handiarekin gainera" nabarmentzen du Sakanako Ibilaldia urte luzez egin duen Ramon Dorronsorok. "Jendeak ongi baloratzen du: ibilbidea oso polita da, errepide eta pista tarte oso gutxi ditu eta paisaiak zoragarriak dira. Gogortasuna badu, eta jendearendako erronka izaten jarraitzen du. Sakanako Ibilaldia egiteak oraindik erronka jarraitzen du izaten" gaineratu du Manolo Morenok.

### Euskal Herriko Erdigunetik

Felix Isasa ingeniariak Euskal Herriko Erdigunea Andiaoko mendilerroan dagoela zehaztu zuen, Beriain tontorretik nahiko hurbil, Olibesario sakonune edo saroiaren. Horretarako, barizentzaren teoriaraino oinarritu zen. Bertan mugarrira jaso zen. 2005etik Sakanako Ibilaldia bertatik pasatzen da. "Berriki jakin izan dugu Felix Isasa hil egin dela, eta aurtengo edizioan ere bera oroimenean izango dugu, Euskal Herriko Erdigunean" aipatu dute Iratxokoek.

### Ibilaldi Motza eta Txikia

Urte horretan ere, 2005ean, Sakanako Ibilaldi Motza antolatzen zuten lehenengoz Iratxok. "Aurreko edizioetan, Sakanako Ibi-

laldiak A aukera zuen, hau da, luzea, hiru baselizak batzen zituena eta B aukera, laburragoa. Kasu honetan, ibilbidea ez zen San Donato ermitara igotzen, mendizaleak Uharteko atakatik Uhart-Arakilera jaisten ziren, gero San Migel igo eta, azkenean, Larrazpildik zuzenean Irurtzuna zihozten, Trinitatea igo gabe. Baina B aukera hori ere luzeegia zela zioten, eta 2005ean Sakanako Ibilaldi Motza egitea erabaki genuen, laburragoa. Gero, 2016an, Sakanako Ibilaldi Txikia egin genuen, belaualdi berriak erakarri eta ibilaldia familian egiteko" diote guztiek.

Beste aldaketa batzuk ere izan ditu ibilbideak. "2012. urtean, Nafarroako Konkistaren 500. urteurrena zenez, gaztelura igo ginen, Orraregira. Eta 2014an, Sakanako Ibilaldiaren 25. urteurrenean, Sakanako Ibilaldia alderantzizko norabidean egin genuen. Baina aldaketa horiek ikuspegi historikoa lantzeko edo data oso konkretuetan egin izan ditugu, jendeari Sakanako Ibilaldia dagoen bezala gustatzen baitzaio" dio Manolo Morenok. Izan ere, ez dago zalantzarik, ibilbide izarra Sakanako Ibilaldi luzea da.

**2008AN 1.000 PARTAIDEEN MUGA GAINDITU ZEN ETA 2017AN ERREKORRA: 1.258 MENDIZALE**

### 1.258 mendizale, errekorra

2008an 1.000 partaideen muga gainditu zuen proba ez lehiakorrrak (1.050 mendizale) eta 2017an parte-hartzaile gehien izan zen: 1.258 kide. Diotenez, parte-hartzearen faktore nagusia eguraldia da. "2008an 1050 mendizale izatetik 2009an 590 izatera pasa ziren. Urte horretan eguraldi oso petrala egin zuen eta parte-hartzean izugarri nabaritu zen" dio Dorisek. Lau urtero, Olinpiada urteetan Tolosan ekainean egiten den mendi martxa denean, Sakanako Ibilaldian partaidetza ere handitzen omen dela gogora ekarri du Manolok. Eta Ibilaldi Motzak eta Txikiak ere mendizaleak erakartzen dituela.

### Oinezko mendi martxa ez lehiakorra da

Sakanako Ibilaldia oinezko mendi martxa ez lehiakorra dela "oso garbi geratu behar da" diote Iratxokoek, baina jakina da geroz eta jende gehiagok korrika egiten duela. "Horrek logistika arazo asko sortzen dizkigu. Guk hornidura guneetarako eta kontrolarako ordutegi zehatz batzuk ditugu, eta sarritan korrika datozenak guneak behar bezala prestatu gabe harrapatzen gaituzte, azkarrago datozelako" dio Dorisek. "2000 urtetik, hasieratik nabaritu genuen hori. Markinako neska batzuk etorri ziren, haien pausua segitzen saiatu ginen eta etsi egin behar izan genuen. Oso azkar zebiltzan, ez korrika, baina abiadura handian.

Mitikoak izan ziren. Baina urte-tik urtera gero eta jende gehiagok egiten du korrika" gaineratzen du Manolok. "Pentsa! Iaz Trinitateko hornidura gunera inoiz baino lehenago igo behar izan nintzen, 12:00ak pasatxo!" gogoratzen du Aliciak.

Sakanako Ibilaldi Luzea oinezko egiteko, esperientzia duen mendizale batek 11 edo 12 ordu behar ditu. Eta korrika datozenak 7 orduren bueltan egin izan dute.

### Aurtengo edizioan aldaketarik ez

Aurten 30 urte beteko ditu Sakanako Ibilaldiak, baina ibilbidean ez da aldaketarik egongo. Bukarera opari-poltsa, diploma eta kamiseta eskuratuko dute partaideek. "1.200 pertsonendako azpiegitura prestatuko dugu. Kamiseta kopuru hori eskatu dugu. Izena ematea zabalik dago eta egunean bertan izena emateko aukera egongo da, Iratxon, goizaldeko bostak laurden gutxitik aurrera. "Askotan hitz egin dugu izena ematea aurretik is-tearen kontua, horrek antolakuntzan lan asko kenduko zigu-lako, baina egunean bertan izena emateak bizitasuna ematen dio egunari, Iratxoko goizaldeko giro hori, izena-emateak, taberna irekita..." dio Manolok. Jende askok azken unera arte itxaroten du izena emateko, eguraldiaren iragarpena ikusi arte.

### Eskaera: ekipazio egokia izatea

Sakanako Ibilaldia egitea ongi ekipatu gabe etortzen omen da jende asko. "Niretzat harrigarriena eta kezagarriena da jendea nola etortzen den ikustea, ekipazioaren aldetik. Fisikoki ongi prestatuta, baina ez eguraldi txarrari aurre egiteko prestatua. Duela urte batzuk goizeko 6:00etan praka motxa eta kamisetarekin agertu ziren proba korrika egin behar zuten asko, nahiz eta eguraldi oso txarra iragarria egon. Goizeko 8:30ean elur-haizea hasi zen eta berehala zuritu zuen. Pentsa, Beriainen norbait galtzen bada, edo txorkatila bihurtu, 10 minututan, arroparik gabe, 0 gradu azpitik, haize horrekin... Apirilean eta

**SAKANAKO IBILALDIA EGITEAK ORAINDIK ERRONKA JARRAITZEN DU IZATEN**

## Sakanako Ibilaldia: apirilak 27

### 1. Ibilbide Luzea (54 km, 3.388 m desnibela).

Goizeko 6:00etan abiatuko dira mendizaleak Atakondoatik. Urrizola, Txurregi (1.100 m), Euskal Herriko erdigunea, Beriain (1.495 m), Uhart-Arakil, Aralarko San Migel (1.240 m), Ata bailara, Madotz, Larrazpil (1.040 m), Goldaratz, Latasa, Trinitatea (995 m) eta Irurtzungo plaza. 11/12 ordu inguruko ibilbidea.

8 kontrol edo hornidura gune: Iturrian, San Donato, Uhart-Arakilen, San Migelen, Madotzen, Latasan, Trinitatean eta Irurtzunen.

### 2. Ibilbide Motza (25,5 km, 1.440 m desnibela).

Goizeko 7:30ean abiatuko dira mendizaleak, Atakondoa pilotalekutik. Etxeberriraino iritsiko dira, Arrantzaleen xendatik. Ondoren, Itxasperi gainditu eta Egirretatik Madotzera iritsiko dira, Larrazpil (1.040 m), Goldaratz, Latasa eta Artola gainditu ondoren, Trinitateko Ermitara igotzeko (995 m). Handik Irurtzuna jaitsiko dira. 6 ordu inguruko ibilbidea.

### 3. Ibilbide Txikia (14 km, 736 m).

Goizeko 9:30ean abiatuko dira, Iratxotik. Etxeko txikienekin egiteko ibilbidea. Txikiak heldu baten zaintzapean egon behar dute. Trinitatera (995m.) igoko dira, Latasara jaitsi eta Arrantzaleen xendatik Irurtzungo plazara helduko dira. 3/4 ordu inguruko ibilbidea.

### Izena ematea, zabalik

Apirilaren 24ra arte, [www.iratxoelkartea.com](http://www.iratxoelkartea.com) web gunetik [www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com) web gune-ra bideratuta. Prezioa: Ibilbide Luzekoek eta Ibilbide Motzekoek 12 euro eta langabetuek 5 euro; Ibilbide Txikiok, 14 urtez azpikoek 4 euro eta 14 urtetik gorakoek 8 euro. Eta probaren egunean bertan, 15 euro.

Sakanako Ibilaldiko informazio guztia eta hiru ibilbideen trackak, perfilak eta mapak [www.iratxoelkartea.com](http://www.iratxoelkartea.com) web gunean topa daitezke.





Pello Alzueta.

## Pello Alzueta gogoan

Gaixotasun larri baten ondorioz izan zenuen Pello Alzueta, urte luzez Iratxoko mendi sekzioko presidentea eta Sakanako Ibilaldiko koordinatzailea. Aurten goa bera gabeko lehen Sakanako Ibilaldia izango da. "Kartelean bere irudia jarri dugu, Pello gogoan dugulako, eta egunean bertan ere bere argazkiren bat jarriko dugu, berak gidari izaten jarraitzen duela adierazteko. Hori izango da gure omenaldi xumea, bera ere horrela zelako" diote Iratxokoek.

Manolo Moreno da Iratxoko mendi sekzioko presidente berria, Doris Vicente kide duela, eta Pellok egiten zituen lan guztiak guztion artean banatu dituzte. Pellok burokrazia kontu guztiak -baimenak, Mendi Federazioko eta Nafarroako Kirol Institutuko koordinazio bilerak, babesleak...- egiten zituen, eta, horretaz gain, Sakanako Ibilaldiko talde guztiak koordinatzen zituen. "Gutako bakoitzak arduratu bat du eta Pellok lan horiek guztiak koordinatu eta batzen zituen" gogoratzen du Dorisek. "Berak esaten zuen taldea zela garrantzitsuena, taldea dagoen bitartean ez dagoela arazorik" gaineratzen du Manolok. Pellok guztia oso ordenatua zuen eta Iratxokoek ez dute, inola ere, zeretik hasi behar izan. "Sakanako Ibilaldia kristoren lana du: propaganda, inskripzioak, web orria, data Federazioetako egutegietan sartu, zirkuitua prestatu, hornidurak, baimenak, babesleak... Makineria martxan dago aspalditik, guztia ongi antolatua dugu eta guztiok badakigu zer egin behar dugun. Aurrera!".

1500 metroan ezin da praka motxetan ibili iragarpena txarra bada. Gero kritika latzak izan genituen ibilbidea ez aldatzea-gatik. Jendeak jakin behar du nora etortzen den" dio Manolok.

Beste urte batean, euri jasa izugarria bota zuen bukaera aldera. Ibilbidea Madotzen moztu eta Irurtzunera bidali zituzten mendizaleak, Trinitatera igo gabe. Horregatik ere kritika handiak ere izan zituztela aipatzen dute Iratxokoek, proba moztu zutelako. "Askotan ez dakizu nola asmatu, baina gu 1.000 pertsona baino gehiagoren arduradunak gara eta ardura hori oso handia da" nabarmendu du Manolok.

### 30 urtetan aldaketa ugari

Hasieran ia etxekoena zen mendi martxa bat, bat-batean antolatutako martxa handiagoa izateak aldaketa asko ekarri zituen Iratxora. "Aldaketa erabatekoa izan zen, baina Iratxon auzolanean lan asko egindakoak gara eta ez genuen apururik izan salto emateko. Orduan 100 bazkide inguru izango ginen, eta lehendabiziko urtea arrakastatsua izan zenez, aurrera!" gogoratzen du Morenok.

Orduko kartelak ere gordeta dituzte Iratxon. "Zenbat aldatu diren ordukoak Xabi Unanuak egiten dituenekin alderatuta... Pentsa, orain web orria dugu, ibilbideen trackak deskarga daitezke, lehen ibilbidea errotulagailu gorritz markatzen genuen bitartean, orain izena ematea web orritik egin daiteke eta hasieran nola ibiltzen ginen..." gogoratzen dute guztiak.

"Ibilbideko kilometroak jakiteko, adibidez, hasieran begiz esaten genituen, eta 2000. urtean Foruzainek gorpil horietako bat utzi ziguten, istripuak daudenean neurketak egiteko, eta ibilbide guztia gorpil horrekin egin genuen; horrela markatu eta neurtu genuen ibilbidea" dio Dorisek. Alicia Navarrok hornidurak gogoratzen ditu, garaiko dokumentuak kontsultatuta. "Begira, 1990 urteko memorian jasotzen da pertsona batek, Manolo Garcia, hornidura guztia egin zuela. Autoarekin Uharte Arakilera, San Migelera eta Madotzera joan zen. Duela urte batzuetatik hona 60 pertsona ibiltzen gara buelta Sakanako Ibilaldian eta tarteke jende gehiago beharko genuke" dio Aliciak. "Izena ematea ere lehen zoramena zen. Telefono-



2017an mendizale gehien izan zituen ibilaldia: 1258. ARTXIBOA

noz egiten zen, datuak eskuz hartzerakoan batzuetan nahastu egiten ginen eta probaren egunean sekulako ilarak eta tapoiak sortzen ziren, izenak ezin bilatu. Orain ordenagailuarekin egiten da guztia eta saltoa handia da. Telefono mugikorretik jarrai dezakegu prozedura guztia, aplikazioa jaitzita. Baina badaezpada B plana izaten dugu beti, guztia inprimatua izaten dugu, arazorik ez izateko" gaineratzen du Dorisek. Bestalde, hasieran Iratxo klubetik ateratzen ziren mendizaleak, baina duela urte batzuk Atakondoako frontoitik abiatzen da proba, horrenbeste jende Iratxotik ateratzea ezinezkoa delako.

### Ingurumena

Probak sortzen duen zaborra izan da Iratxoko buruhauste-tako bat. "Ingurumenaren zain-

tza gure obsesioetako bat da. Bidean aldaketa handia izan da, jendeak orain ibilbidean ez baitu apenas ezer lurrera botatzen. Baina hornidura guneetako zaborrontzietan jendeak ez du zaborra ongi botatzen. Gaizki botatako zaborra ongi birziklatzeko denbora eman behar izaten dugu. Eta gero, higaduraren arazoa dago. Jendeak ez ditu bideak errespetatzen. Lehen Uhartetik Aralarrera igotzeko bide bakarra zegoen, oso ongi markatuta, baina orain mila daude, korrikalari horiek, azkar-rago egiteagatik, sortzen dituz-

## 1.000 PERTSONA BAINO GEHIAGOREN ARDURA DUGU, ETA HORI ARDURA OSO HANDIA DA

tenak. Pixkanaka euriek lurra eramaten dute eta mila bide daude. Guk bide legala markatzen dugu, baina zenbaitek segituko dute? Hori kezkarria ere bada" gaineratzen du Manolok.

Biek, Manolo Morenok eta Ramon Dorronsorok, Sakanako Ibilaldiko edizio gehienak egin izan dituzte. "25 urteurrenean ibilaldia alderantzizko norabidean egin genuenean egin zitzaidan gogorrena eta ikusgarriena" dio Dorronsorok.

Sakanako Ibilaldia 13.000-14.000 euroko aurrekontua du eta aurrekontua lotzea izaten da taldearen lan garrantzitsu bat. Behin zuloa izan zuten, eguraldi txarragatik inskripzioak asko jaitzi ziren urte batean. Izan ere, jende gehiago edo gutxiago etorri, gastua aurretik egiten da. "3.000 euro galdu genituen, Iratxo elkarteari eskatu genion dirua eta gero itzuli genion. Normalean ez dugu zulorik egiten, inskripzioei, babesleei eta diru-laguntzei esker, baina zuloa sortzea gerta daiteke. Bestalde, hornidura gunean sobratzen diren elikagaiak Nafarroako Elikagai Bankura bideratzen ditugu" azaldu dute Iratxokoek.

### Ehunka pasadizo, bideoan

Urte hauetan Sakanako Ibilaldian ez da istripu handirik izan, iktus eta bihotzeko bat izan ezik. Bero eta hotz kolpeak, hanka bihurrituak eta halakoak normalak dira halako ibilbide batean. Beriainen, San Donato baselizatik gertu, tximista batek jota hilik topatu zituzten 8 behiak gogoratzen dituzte guztiak. "Sakanako Ibilaldia bezperan gertatu zen, eta hara igo ginenean sekulako sustoa hartu genuen. Zer pentsatu eman zigun. Iltzatuta dugu oraindik irudi hori" aitortu zu Manolok.

30 urtetan ehunka pasadizo daude kontatzeko. "Baionako Maria Luisa eta bere taldea beti bezperatik etortzen ziren, eta Iratxo elkartera etortzen ziren afaltzera, ibilbidea zatekin egiten zuten Oiartzungo koadrila ere mitikoa izan zen... Zenbat pasadizo..." dio Ramon Dorronsorok.

Horieta pasadizo asko Xabi Unanu prestatzen ari den dokumentalean jasoko dituzte. "Ibilaldiaren historia eta bizipenak jaso nahi ditugu bideo horretan eta Irurtzungo Kirolaren Astean aurkeztuko dugu" azaldu du Dorisek.



ASTEKOA

ZOILA BERASTEGI MARIÑELARENA

## Arma, tiro, klika

Abestia entzun nuen lehenengo aldian ez ninduen erabat konbentzitu. Aldiz, bideoklika egin nuen bideoklika ikusi nuenean, eta malkoren batek edo bestek ihes ere egin zidan. Bi mundu aurrez aurre, batek zer esango besteak hura erantzun; batzuek zirt, besteak zart. Eta nola doazen bi mundu horien mugimendu, eritimo, proposamen eta moduak elkarrekin nahasten, aberasten, fusionatzen, mugak gainditzen. Esplorazio bat da; elkar ezagutza ahalbidetzen duen atrebentzia bat.

Izan ere, *Aitorren hizkuntz zahar* honek aspaldikoak ditu sustraiak, eta kolore guztietako ahotan ditu hegoak. Euskaldunak ere badaki rap-a egiten, break dance dantzatzeko edo gerri bueltak sentsualitatez mugitzen. Euskaldunak ere ramadam-a egiten du, flamenkoa abesten du, hiyab-a janzten du eta ile afro-a darama. Ezin gara turistek erosten dituzten postaletako iruditegira mugatu. Euskalduna ez da bakarrik txapela soinean daraman muxu gorria. Geure identitate kolektiboaren

### EZIN GARA TURISTEK EROSTEN DITUZTEN POSTALETAKO IRUDITEGIRA MUGATU

erreferentzialtasuna geure gizarteko errealitatera egokitu behar dugu, izango bagara. Euskararen herri zabal eta anitz honetan, denok gara kabitzen, denok dugu egiten eta denok behar dugu eragin.

Laboaren "arma, tiro, pun"-etik gatoz, ezarrietan korapilaturik egon den hizkuntz isilarazi batetik, alegia. Eta orain, "arma, tiro, klika" egin nahi dugu, kontzientziak esnatzeko, aldatzeko eta indartzeko. Sustraiak eta hegoak, berriz ere: txapelarekin edo txapelik gabe buruan, euskara ibili dadin munduan... Klika!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altzasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Kontsumitzailea nahasten duten aseguru-etxeen arteko hitzarmenak

#### IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Bi ibilgailuen arteko kolpeetan aseguru-etxeen arteko hitzarmenen aplikazioak askotan kalteak jasan dituzten hiritarrentzako kaltegarriak dira. Ibilgailuek beharrezko asegurua izan behar dute beti.

Hitzarmen hauekin, hiritar baten beribilak kolpe bat jasaten duenean, bere aseguru-etxeak ordaindu behar ditu kalteen konponketak, kolpearen arduraduna beste beribil bat denean ere. Horren truke, beribil arduradunaren konpainiak biktimarenari hitzarmenetan zehaztutako modulu bat ordaindu behar dio, konponketaren kostua alde batera utzita.

Hots, kotxearen konponketak 100 euroko kostua badu, konpainia "arduradunak" "kaltea jasan duenari" 882 euro ordainduko dizkio ezbeharragatik -2016ko

ereduaren arabera. Baina 882 euro ordainduko dizkio ere konponketak 5000 euroko kostua badu. Printzipioz, modulu honek ezbeharren batezbesteko zenbatekoari erantzuten dio eta urtero eguneratzen da.

#### Hiritarren nahastea

Egoera honek nahastea sortzen du hiritarren artean. Izan ere, bere aseguru-etxearekin negoziatu behar dute kolpea eman diona beste beribil izanda ere. Gainera, aseguruaren kalte-ordainketen eskaintzak tailer independenteek beribil berarentzat egiten dituzten aurrekontuak baino baxuago izaten dira. Hau hala da konpainiak askotan kalte-ordainketa merkatu nahi duelako. Iratzen zazpiehun euroko ezberdintasunak ikusi ditugu aurrekontuen artean.

Aseguru-etxeen arteko hitzarmenak adierazten du

kaltetutako beribilaren konpainiak aseguratuari jakinarazi beharko diola "ezbeharraren arduradun den erakundearen izenean eta horren kontura jarduten dela". Hala ere, kaltetuak bere aseguru-etxeak dena kudeatzen duela soilik ikusten du (kalteak peritatzen ditu eta kalte-ordainketa balioztatzen du) eta ez du ulertzen zergatik. Ez daki ere kolpea eragin duen beribilari eta, ondorioz, horren aseguru-etxeari kaltea itzultzeko erreklamatzeko eskubidea duela.

Nolanahi ere, hori kontuan hartuta istripuan kaltetutako beribila konfiantzazko tailer batera eramatea guztiz gomendagarria da. Izan ere, tailerrak kaltea behar bezala baloratzen duela eta beribila ongi konpontzen dela aseguruaren aurrean bermatu behar du.

## OBJEKTIBOTIK

### Sakanako Tronuen Jokoa

Tronuen Jokoa telesailak aste honetan hasi du bere azken denboraldia. Pena bat da, bagenuelako telesailako leku bilatzaileendako proposamen polit bat, Sakanako lur zoragarri hauetan grabatzea. Argazki hauek ikusita, edozein serie edo pelikula fantastiko grabatzeko aukera egongo litzateke gure lurretan. Edo guk grabatu dezakegu zerbait.



ARACELI MARKOTEGI ARBIZU

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
Miren Arregi Olivencia  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altzasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





Joan den urteko Etxarri Aranazko hamaikakoa. ARTXIBOA

# Ahulguztiduna dena ahalduntzeko

Korrikaren lekukoa Euskaraldiak jaso du. 2020ko udazkeneko Euskaraldia prestatzeko ahalduntze saioa apirilaren 29an, astelehenean, 18:00etan Sakanako Mankomunitatearen egoitzan

## SAKANA

“Ehunka milaka bizitza eta gogo EUSKARAK BATUAK”. Korrikaren lekukoak eskuz esku Euskal Herrian barna eraman duen idatziaren bukaera da hori, Maialen Lujanbio Zugastik idatzia. Gasteizen irakurri zuen mezua honela hasten zen: “Hizkuntza ez da edukitzekoa. Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika. Beraz, Klika! Instalatu eta elika!” Euskaraldiko txapak berriro kalera aterarazi dituen Korrikaren akaberan Lujanbiok euskara erabiltzeko deia egin zuen.

Txapen bidez bat egin dute Korrikak eta Euskaraldiak. Aurrenak Klika eginez hizkuntza ohituretan aldaketa egiteko es-

katuz. Atzenak norberaren hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko eskatuz. Hain zuzen Korrikak Euskaraldiari pasa dio lekukoa. Izan ere, Euskaraldiko bigarren edizioa 2020ko udazkenean hasiko da. Baina hura behar bezala prestatzeko Sakanako ahalduntze saioa apirilaren 29rako, astearterako, 18:00etan iragarri dute. Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan izanen da. Euskaraldiko sustatzaileek parte-hartzaileen iritzia jaso nahi dute eta makina bat eskualdetan eginen dituzte halako aurkezpen saioak.

Horiek guztiak bigarren Euskaraldiaren aurkezpen minte-

giaren atarikoak izanen dira. Aipatu saio hori garagarriaren leian izanen da, Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako Carlos Santamaria zentroan, 10:00etatik 13:30era. Aurreneko Euskaraldian pertsonen hizkuntza ohituretan eragin eta horrela euskararen erabilera handitzeko asmoa zegoen. Bigarrenak helburu horri helduko dio, baina entitateek hartuko dute protagonismo handiagoa. Horregatik, garaiz abiarazi nahi dute dinamika. Donostiako hitzordua xehetasunak emateko izanen da. Euskaraldiko sustatzaileek euskaltzale sakandarrei euren agendatan bi data horiek gordetzeko eskatu diete.



Kalean ikusten diren errotuluak euskaraz izatea da helburua. ARTXIBOA

## Errotuluak euskaraz jartzeagatik diru-laguntza eska daiteke

Mank-ek emanen die errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa euskaraz jartzen dutenei

## SAKANA

Kalean dauden testu idatziek informazioa ematen dute. Eta funtzio sinbolikoa dute ere. Errotuluek establezimenduari buruzko informazioa emateaz aparte, hizkuntza baten erabilera edo aldeotasuna adierazten dute. Sinbolismoa ere badu, hizkuntzari balioa aitortzen diolako. Kaleko idatzi horiek hizkuntza paisaia osatzen dute eta hori euskalduntzeko asmoz Sakanako Mankomunitateak diru-laguntza deialdia egin du. Euskara Zerbitzuan argi dute komertzio edo ostalaritza establezimenduetan euskaraz errazago hitz eginen dugula haren hizkuntza paisaia euskaraz badago. Horregatik egin du deialdia, elkarteei zabaldu zaiona.

Deialdiak 1.500 euroko diru-poltsa du. Sakanako Mankomunitateak deialdian jaso duenez, euskara hutsean idatzita dagoen

errotulua jartzen duenari gastuaren erdia pagatuko diote, gehienez ere 500 euro. Euskaraz eta erdaraz idatzitako errotuluak jartzen dituztenei gastuaren laurdena pagatuko diote, 250 euro gehienez. Azken kasuan euskarazko testuak lehenetasuna izan beharko luke.

Diru-laguntzan interesa dutenek azaroaren 29ra arteko epea dute euren eskaerak aurkezteko. Sakanako Mankomunitatean Lakuntzan aurkeztu beharreko agiriak honakoak dira: eskabide ofiziala beteta, IFKren fotokopia, fakturaren fotokopia, errotulua argazkia eta aitortpen bat zeinetan jasotzen den errotulagatik beste administrazio edo erakunde pribaturen bati diru-laguntza eskatu zaion eta laguntza jaso den. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta deialdiaren inguruko bete behar guztiak [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) gunean daude.

107.3 FM  
**beleixe**  
**OPORRETARA GOAZI!**  
APIRILAREN 29AN  
IZANGO GARA BUELTAN

GRUNDIG

## Ostatua hartzeko proposamenak aurkez daitezke

Lizarragako Kontzejuak mediku etxea zenaren beheko solairua moldatu eta han taberna-jatetxea eta denda jarriko ditu. Hura kudeatzen interesa dutenendako deialdia egin du. Jakinarazi duenez, hiru urterako emanen du kudeaketa, beste bira luza daitezkeenak. Aurreneko sei hilabeteak probakoak izanen dira. Kudeatzaileek ura eta argindarra besterik ez dute pagatu behar. Baina ostatua hartzen dutenek urtero sei zerbitzu eskaini behar dizkiote herriari. Interesa dutenek proposamenak Ergoienako udaletxean aurkeztu behar dituzte hilaren 26ko 14:00ak baino lehen. Deialdia [www.ergoiena.com](http://www.ergoiena.com) gunean dago.

## Lanak egiteko aurrekontu moldaketak eginak

Altsasuko Udalak bere aurrekontuen moldaketak onartu zituen astelehenean. Hala, diruzaintzako gerakinean dituen 332.536 euro Amaia eta Bakea kaleetan aurten egingen diren sareen eta zoruen berritze lanetara bideratuko ditu udalak. Toki Azpiegitura Planaren bidez emandako 595.134 euroko diru-laguntza kontuan izan behar da lan horien aurrekontua osatzeko. Gainera, udalak 322.117 euroko aurrekontu moldaketa onartu zuen. Erabilera Askeko funtseko 170.000 euro batu behar zaizkio kopuru horri plaza berritzeko aurrekontua osatzeko. Lanak batera egingen dira garagarriaren bigarren erdialdetik aurrera.

## Arbizuko udaberriko azoka hilaren 28an izanen da

Arbizuko Udalak 10. urtez udaberriko azoka antolatu du. Aurten apirilaren 28an, igandean, 10:30etik 14:30era izanen da, plazan. Udaletik jakinarazi dutenez, etxeak edertzeko beharrezko diren landare eta lore guztiakin batera, liburuak, artisautzatza postuak, Mank-en 100zaku konpost banatu eta beste makina bat gauza izanen dira.



Langileak Uharte Arakilgo etxeetako fatxada batean kablea jartzen. ARTXIBOA

# Iritsi da zuntz optikoa Uharte Arakilerera

Bai industrialdera bai etxeetara ere. Horrekin batera, frontoian egingen dituen hainbat konponketa eta igerilekuan egingen diren konponketak eta moldaketak dira aurten udalak egingen dituen inbertsio handienak

### UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalak aurten 830.538,38 euroko aurrekontua du. Inbertsioak egiteko laguntzekin batera aurrekontuak urte batetik bestera behera egin du, joan den urtean baino 196.385,56 euro txikiagoa baita aurtengoa. Hala ere, inbertsiorako aukera izanen du udalak. Inbertsio handiena berriki egin den zuntz optikoaren jartzea izan da. Adakok zuntz optikoa autobiatik Errekabitarte auzora eraman zuen, lurpetik, eta handik Hiriburu industrialdera. Eskolak eta mediku kontsultategiak ere zuntz optikoa dute. Uharte barna fatxadetan jarritako kableen bidez egin da zabalkundea.

Juana Sainz Betelu alkateak jakinarazi digunez, lan horiek 62.991,35 euroko aurrekontua dute, haietatik 41.218,76 euro Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planaren bidez pagatuko dira, eta gainontzeko 21.772,59 euroak udalak jarriko ditu. Plan beraren bidez Larre-

bieta frontoian egingen diren lanak ere finantzatuko dituzte. Sainzek azaldu digunez, kantxa pintatu, harmaila parean dagoen hezetasuna kendu, teilatuan dauden itajurak zigilatuko dituzte eta baloi kolpeengatik hautsiak dauden aldeetako paretetako plakak ordezkatu dira, argia sartzen uzten dutenak. 58.960,4 euroko inbertsioa izanen da. 34.109,32 diru-laguntzekin estaliko du udalak eta gainontzeko 24.851,08 euroak berak jarriko ditu.

Bestetik, Uharte Arakil-Beriain kilometro bertikala probagatik herria mendi korrikalarien artean aski ezaguna da. Eta etorkizunean are gehiago izanen da, Sakanako trail estazioaren harrera gunea hartuko baitu Uharte Arakilek. Igerilekuen ondoko eraikinean egonen da, jatetxearen solairu berean. Beheko solairuan aldagelak eta dutxak daude eta han gimnasio txiki bat eraikiko da. Trail estazioak mendi korrikalariari zerbitzua eskaintzen dien gunea izan nahi du.

Lanek 57.402 euroko aurrekontua dute. Horietako 40.181 euro Europako Landa Garapenerako Planaren bidez finantzatuko dira eta gainontzeko 17.200 euroak udalak jarriko ditu. Sainzek gogorazi digu Cederna-Garalurren laguntzarekin Beriainerako iagoera homologatu zutela.

### Inbertsio gehiago


Itsesia igerilekuen ondoan dago autokarabanendako gunea. Han dagoen hobi-septikoa hondatu egin zen eta hura konpontzeko 5.000 euro inguru bideratu ditu udalak. Sainz gaztigatu digunez, "nahikoa jendek erabiltzen du, zerbitzuz kanpo ez da ezta hila-bete egon, martxo erdialderako konponduta zegoen". Herriaren

## UDALAK MENDI KORRIKALARIENDAKO TRAIL ESTAZIOAREN HARRERA GUNEA EGINEN DU ITXESIN

beste aldean dago Erdi Aroko zubia, eta Sainzek azaldu digunez, 8.200 euro bideratuko dituzte haren iparraldeko oinarria sendotzera: "aurreko urteetako uholdeek zubiaren oinarriko harriren bat eraman zuten, baina aurten uholdeek nahikotxo eraman dituzte. Udan konponduko dugu". 8.200 euro bideratuko dira lanetara, horretarako ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Udalak joan den urtean azienta bildu eta kamioietan sartzeko itxitura egin nahi izan zuen Aralarren, La Parrillan. "Gobernuak deialdia korrika eta presaka egin zuen. Jaso genuen diru-laguntza baina horretan aritzen diren gremioak lotuta zeuden eta ezin izan genuen egin. Aurten egin nahi genuke. Diru-laguntzaren zain gaude". 37.000 euroko aurrekontua du lan horrek, 17.740 euroko laguntza jasotzea espero dute udalean, haiek 19.000 euroekin osatzeko.

Alkateak, bestetik, jakinarazi digu eskolako patrioko itxiturako hesia aurten aldatu egingen dutela eta horretara 7.000 euro bideratuko dituztela. Joan den urtean udaletxeko safeia edo ganboikoa konpondu eta bi areto handi egin zituzten. Haietako bat hitzaldietarako erabiliko dutenez, mahaia eta aulkiak erosteko 1.500 euroko diru poltsa du udalak. Agiriko despopulatuko eliza egonkortzeko lanak aurten despedituko dituztela aurreratu digu Sainzek. "Jendea ez erortzeko hesia jarriko dugu ere", aurreratu digu. Horretarako 3.000 euro ditu udalak. Alkateak nabarmendu nahi izan du herriko gizarte, kirol eta kultur erakundeak laguntzeko 10.000 euro banatuko dituztela. Azkenik, igerileku sasoirako udalak bi sorosle kontratatuko ditu.







Permagsako langileak motorretan lan egiten. UTZITAKOA

#### ALTSASU

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP), Smart Cities Institutuaren (ISC) bidez, Integralia, Ingeteam eta Permagsa enpresa nafarrekin partzuergoa osatu du. Helburua mikrobus elektriko eta autonomo bat garatzea da, konexioa eta 150 kilometroko autonomia dituen. Boletus izeneko Ikerketa eta Garapen proiektu estrategikoak Nafarroako Gobernuaren 1,46 milioi euroko finantzazioa du.

Ramos Industrialen zati bat da Permagsa enpresa eta gerentea Asier Leitza arbizuarra da. Enpresaren berri eman digu berak: “Ramos enpresa bi bazkidek sortu zuten duela 55 urte. Motorrak bobinatzen hasi ziren. Gaur egun Ramosek 100 langile inguru ditu, horietatik 30 ingeniariak dira eta automatizazio, robotika, ingeniari-tza, mantentze, instalakuntza eta hornidura arloak lantzen ditu. Eta enpresaren sorrerako jarduna mantentzen da, motorren bobinatzea”.

Beraz, motorrak bobinatzeko gaitasuna eta gainerako arloak teknologikoki oso aurreratuta zeudenez, Ramosen bi jakintza arloak uztartzea eta imanek dauzkaten motor sinkronikoak ekoizten hastea erabaki zuten. Permagsa enpresa 2004an sortu zen. “Motor horiek abantaila handiak daukate betiko motor asinkronoen aldean: tamaina berean indar gehiago eta askoz eraginkortasun handiagoa ditzute, esate baterako. Bereizgarri

# Mikrobus elektrikorantz

Permagsa enpresa altsasuarra Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako beste bi enpresekin prototipoa garatzen ari dira. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin hiru urteko lana egin dute, aurten despedituko dutena

horiengatik, gero eta aplikazio gehiago ditzute motor sinkronikoek. Halako motorrak ditzute ibilgailu elektrikoek % 90”. Permagsak batez ere igogailuetarako motorrak egiten ditu. “Baina ibilgailu elektrikoek, sortzaileen, serbomotorren alorrean ere lanean ari gara”.

Motor sinkronikoak egiten dituen Nafarroako enpresa bakarra da Permagsa. Hura garatzeko Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) laguntza handia izan dute, “teknologikoki nahikoa aurreratua delako. NU-

**MOTOR SINKRONIKOAK EGITEN DITUEN NAFARROAKO LANTEGI BAKARRA DA**

Peko irakasleekin egon ginen. Esaterako, Etxarri Aranazko Luis Mari Marroyo Palomok hasieran lagundu zigun. 2004tik badakite motor horiek egiten ditugula. Orduetik, NUPekin hainbat Ikerketa eta Garapen proiektu egin ditugu elkarlanean. Unibertsitateak gai jakin batean aditua den irakaslea gu laguntzen jartzen dute. Beraz, gobernuak eta unibertsitateak ezagutzen gaituzte eta gure gaitasunen berri badute”. Beste ikerkuntza zentroekin ere elkarlanean aritu dira Cener (Energia Berriztagarrien Nazio Zentroa) eta Naitec (automozioaren eta mekatronikaren garapenerako ikerketa zentroa).

#### Mikrobus elektrikoak

Permagsak bezala Integraliak (Mercedes Sprinter motako furgonetak barrutik aldatu eta mi-

autobus bati erabateko autonomia ematea, kasu honetan mikrobus bati”. Iruñerriko Artikako lineari erreparatu zioten. “Goizean ibili eta tarteka 15 minutuko karga azkarrak egiteko aukera zeukan, eusteko”.

Mikrobusa modu autonomoan gidatzeko zatiaren arduraren NUPen esku gelditu zen. “Oso konplikatu da. Maila desberdinak daude, eta ez da erabat autonomoa izanen. Baina aurrerapauso handiak eman dira”. Leitzak azaldu digunez, autonomiak bost maila baditu, gorenean ibilgailuak ez du eta bolanterik ere ez. Maila horretara ez ginela iritsiko suposatzen zen. Hainbat radar jarri zaizkio. Horiek bideberriko arrastoak eta zutikako seinaleak detektatzen ditzute. Baina gidariak mikrobusen joan beharra du. Hari laguntzak ematen zaizkio”.

Mikrobus elektrikoak sortzeko proiektua 2017an hasi zen eta aurten despedituko da. Leitzak jakinarazi digunez, “prototipoa egin daukagu eta orain probak egitea gelditzen da”. Proiektuak aurrera ateratzeko bat egiteaz galdetuta Leitzak azaldu digunez, “gaur egun oso zaila suertatzen da enpresa bakar batendako denetarik jakitea. Beraz, Nafarroako Gobernuak nahi duena da alor desberdineko enpresak elkartzea eta indarrak batzea”.

#### Gehiago

Sakanako Eseki, Iradi Ingenieritza eta Arania enpresekin sortutako beste partzuergo batean lanean ari da Permagsa gaur egun, e-Hiera proiektuan. Gobernuaren 1,2 milioi euroko diru-laguntza dute. Uraren bidez argindarra sortzen duen lerro-turbina bat garatzen dabilta. “Proiektu horretan hainbat gauza egiten dira. Guk motor sinkronikoak erabiliz energia sortzaile bat egin dugu. Proiektua bukatzeko dago. Horretan lanean ari gara”. Duela bi urte eman zieten proiektua egiteko laguntza eta aurten bukatu behar dute. “Prototipoak eginak daukagu. Orain testatzen ari gara, gero produktua ateratzeko”.

Esutan proiektu asko ditzutela esan du Leitzak: “asko ibilgailu elektrikoekin zerikusia duten proiektuak dira”. Tartean dago ibilgailu elektrikoek motorrak optimizatze egitasmoa. “Badi-rudi etorkizunean asko erabiliko ditugula ibilgailu horiek”.

**PERGAMASAN EGITEN DITUZTEN MOTOR SINKRONIKOEN GERO ETA APLIKAZIO GEHIGO DITUZTE**





Ihabarko kontzeju-etxea herritar guztiendako irisgarria bihurtu da.

## Despeditu dituzte kontzeju-etxea berritzeko lanak

Lehen solairuko erabilera anitzeko gela Arakilgo Udalak antolatutako antzerki tailerrarekin mustu da

IHABAR

Negua despeditzerako Ihabarko kontzeju-etxea guztiz irisgarria zen. Atea lurretik 95 cm-ra zegoen eta eskailerak igo behar ziren. Haiek kendu eta arranpa eta eskailera berriak egin dira persona guztiak sarbide erraza izan dezaten. Izan ere, beheko solairuan medikuaren kontsultategia, liburategia eta artxiboa daude. Lehen solairuan erabilera anitzeko gela prestatu dute. Barruko paretak forratu dituzte eta tartean isolatzailea jarri dute. Aldi berean, lehen solairuko eta ganboikoko edo safeiko zoruak berritu eta isolatzailea jarri dute. Lan horiekin batera fatxadako leihoak aldatu dituzte. Horrek berogailuaren faktura txikitzea ekarriko du.

David Erbiti Irañeta kontzejuburuak esan digunez, orain han erakusketak, tailerrak, ikusentzunezkoen emanaldiak eta

beste eginen dira. Kontzejuak, udalak edo herritarrek antolatutako saioak hartuko ditu gelak. "Igotzeko aulki elektriko bat jarri dugu eskaileretan. Beraz, edozein pertsona igo daiteke gora". Lanek 66.811,37 euroko aurrekontua izan dute. Cederna-Garalurren bidez Europako Landa Garapenerako Programako diru-laguntza jaso zuen.

Lan horren beste zati bat ordaintzeko Ihabarko Kontzejuak Nafarroako Gobernuaren Erabilera Askeko Funtseko dirua erabiliko du. Aurten kontzejuak 23.829,7 euro jasoko baititu foru administratibotik. Diru hori ere kontzeju-etxeko sotoan dagoen bajera intsonorizatzeko erabili dute. Festetan han afariak eta dantzaldiak izaten dira eta oihartzun handia sortzen zen. Hura kentzeko lanak dagoeneko eginak daude. Atea aldatuko dute Toki Azpiegitura Planarekin.

# Udala ostatua alokatu nahian dabil

Urte hasieratik itxita dago eta haren zerbitzurik gabe gabezia handia nabari da herrian. Aurrekontuari dagokionez, inbertsiorik handiena beheko basoaren erdia hartuko duen bazkaleku edo angio bat egitera bideratuko dute

ARRUAZU

Taberna, jatetxea eta denda txikia. Horiexek ditu Arruazuko ostatuak. Betidanik mugimendu handia izan duen ostalaritza zerbitzua izan da. Eta arbazuarek zerbitzu handia eman diena eta herria biziartzen duena. Aurreko kudeatzaileek utzi ondoren, urte hasieratik ostatua itxita dago. Pello Betelu Ganboa alkatetako bi deialdi egin ditugu, alferrik. Eskaintza bat agertu zen baina alokatzeko etxebizitza eskatzen zuen eta ez dago". Beteluz azaldu digunez, udalak aurten ostatuan ureko karea kentzeko tresna jarriko du. Joan den urtean hango altzariak erosi zituen eta lau urtetan pagatuko dituzte. Bitartean gero eta gertuago dauden festetarako ostatua inork hartu ez badu "zerbait asmatu beharko dugu" esan digu alkateak.

Arruazuko Udalaren aurtengo aurrekontuko diru sarrerak 139.985 eurokoak dira, joan den urtean baino 1.620,95 euro gutxiago. Gastuak, berriz, 131.036,71 dira, aurrekoak baino 25.134,32 euro gehiago. Alkateak esan digunez, inbertsio handiena "trenbidetik Aralarreantzen eginen den itxitura izanen da. Baso erdia hartuko du eta 20.000 euro inguruko aurrekontua du. Diru-



Taberna, jatetxea eta denda txikia ditu ostatuak.

laguntzarekin erdia pagatuko dugu. Horrekin basoan abereendako bazkaleku edo angio bat egin nahi dugu, lehen kudeatzen zen bezala erabiltzeko". Itxitura uda partean eginen dute, baina aurretik Basabea eta Arnantzen joan den urtean saldutako pinu aprobetxamenduak aterako dituzte. Itxitura horrekin batera urtero sasiak kentzeko lana ere izanen da. Beteluz jakinarazi digunez, hurrengo udalari utziko diote Aralarko pago aprobetxamenduaren markatzea eta enkantea egitea. Enkanteetatik

ateratuko % 20 basoan inbertitu behar denez, lortutako dirua bideen konponketarako erabiltzea aurreikusten dute.

Bestetik, Arruazuko alkateak jakinarazi digu badituztela egiteko hainbat lan maiatzaren 26an aukeratuko den udal berriaren esku utziko dituztenak: haurren jolas parkea eta kaleetako bankuak berritzea eta ludotekan mahaia eta artxibategia jartzea. Bitartean, alkatea pozik dago Arruazun bi etxe berri egiten ari direlako eta jendea herrian gelditzen delako.

**BIL TOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneratik ostiralera  
Eguneko menua  
10€

Asteburuetan  
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Txooooo!x!

**JUANLUZENA**  
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE  
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ  
948 604 571 | 680 652 183

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak  
liburuak  
jostailuak  
opariak  
eskulanak

Inprimagailuendako  
kartutxoak

948 460 477  
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik

**maríaeugenia**  
Arrainak

Lortu deskontuak  
gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725



# Maravillas gaztetxeari elkartasuna adieraztera

Sakanako elkartasun eguna Ziordiko Amarauna gunee autogestionatuan izanen da apirilaren 27an, larunbatean. Auzipetutako 82 pertsonen artean zazpi sakandar daude. Epaiketa maiatzaren 9an izanen da

## ZIORDIA

Iruñeko Nabarrerria auzoan zegoen Maravillas gaztetxea Nafarroako Gobernuaren aginduz bitan hustu zuen Foruzaingoak. Aurrenekoa joan den urteko agorrilaren 17an izan zen. Bigarre-na, berriz, ilbeltzaren 8an. Gaztetxearen hustearen kontura auzibidea zabaldu dute eta 82 pertsona daude auzipetuta. Gaztetxetik jakinarazi dutenez, "haietako bat espetxean sartzeko arriskuan dago". Zazpi sakandar ere auzipetuta daude, lau husteagatik eta hiru errepide mozketak transfeministarengatik. Maravillaseko kideek gaineratu dutenez guztira 109.160 euroko isunak jaso ditzakete auzipetuek. Epaiketa maiatzaren 9an egingen da.

*Epaiaketa guztien gaineratik, Maravillas aurrera leloa duten elkartasun egunak antolatuta dituzte Euskal Herriko hainbat tokitan. Maravillasekiko Sakanako elkartasun eguna Ziordiko Ama-*



Maravillas gaztetxea zena. MARAVILLAS

rauna eremu autogestionatuan ospatuko da. Iruñeko Alde Zaharreko gaztetxearen hustea salatu eta epaiketei aurre egiteko dirua biltzeko asmoz antolatuta da eguna, egun osoko egitaraua izanen duena.

## Egitaraua

Gazte mugimenduko kideek antolatutako egitaraua errepre-sioaren kontrako tailerrarekin abiatuko da, 11:00etan. Haren ondoren, 14:30ean, bazkari beganoa izanen da (10 euro). Aldarrikapena modu ludikoan, kalejira eginez, Ziordira zabalduko dute. Jolasak eta mural margotzea izanen da ere. Egitaraua despeditzeko Amaraunak Atzapar rock, Embajada eta Alerta Gorria taldeen kontzertuak hartuko ditu (4 euroko sarrera). Afaltzeko eta han bertan lo egiteko aukera egonen da (lo-zakua eta esterilla eraman beharko dira).

Bestalde, Iturmendiko Gazte Asanbladak herri bazkaria antolatu du maiatzaren 1erako, maiatza jasotzen den egunerako. Bazkarirako izen ematea gazte-txeetan edo ohiko tabernetan egin daitekeela gaztigatu dute. Sakanako lanketaren barruan, Altsasun manifestazioa egingen da maiatzaren 3an.



Errepublikazaleak elkartu ziren.

## Errepublikaren balioak aldarrikatu zituzten

II. Errepublikaren ezarpenaren 88. urteurrena oroitzeko ekitaldia egin zen

## ALTSASU

1931ko apirilaren 14an ezarri zen II. Errepublika. Efemeridea go-goan, Altsasuko Ezker Batuak errepublikaren eta askatasunaren aldeko ekitaldia antolatu zuen. Arturo Carreñok hartu zuen hitza eta gogorarazi zuen II. Errepublika militarrek emandako estatu kolpearen ondorioz hiru urteko gerra zibila izan zela eta hala erori arazi zutela. "Hainbeste urteren ondoren 100.000 fusilatu, eraildako eta desagertutakoen gorputzak bilatzen ari dira ezpondetan, lezeetan eta Erorien Haranean.

Eta hauteskundeen atarian gaudela, Carreñok adierazi zuenez, "ez du etxean gelditzea balio. Botoa eman beharra dago". Botoa ematera deitu zuen, "pixka bat hobe bizi ahal izateko. Berdintasunezko jendarte baten alde. Aberastasunaren banaketa justuaren alde. 3 milioi baino gehiagoko langabe kopurua murrizteko. Migratzaileak ez baztertzeko". Herrialdeak "aldaketa eta aurrerabidea" behar zituela gaineratu zuen, hobetu beharreko hainbat arlo nabarmenduz: hezkuntza publikoa, osasun publikoa, mendekotasuna, lan duina eta den-denen ongizatea". Altsasuko auziagatik preso zeudenendako agurra bidali zuen.

## PPk hauteskunde hautagaiak aurkeztu ditu

Navarra Suma koalizioaren baitan aurkeztuko dira udal hauteskundeetara

## ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Maiatzaren 26an udal hauteskundeak egingen dira, deialdi horretara begira Alderdi Popularrak Etxarri Aranazko eta Altsasuko hautagaiak aurkeztu zituen larunbatean. Navarra Suma hautagaitzen barruan joan dira aukeratutakoak. Eskuineko koalizioaren zerrendaburua Etxarri Aranatzen Manuel Leal Villadangos izanen da. Murchanten zinegotzia izana da. Iruindarra sortzez, 15 urte darama Erriberan bizitzen. Nekazaritzako-peritu eta enpresen kudeaketan lizentziatua, gaur egun Tuteran inguruan funtzio publikoan ari da. Lealen bigarre-na Merche San Pedro Lopez izanen da. 57 urte ditu, ezkondua dago eta bi alaba ditu. Zamoran jaioa Tuteran bizi da. Erriberako hiriburuan hiru legegintzaldietan zinegotzi izan zen, 2003 eta 2015 artean. Udalean Hezkuntza, Gizarte Etxeak eta Gazteria zinegotzia izan zen, baita kultura zinegotzi eta Castel Ruiz kultur guneko presidentea ere.

Navarra Suma Altsasun ere hautagaitza aurkeztuko du. Zerrenda burua UPNkoa izanen da, bera baita eskuineko koalizioatik udalean ordezkatu da goena zinegotzi bakar batekin. UPNk ez du oraindik jakinarazi zein izanen den zerrenda burua eta Javier Lopez Patusek errepikatuko ote duen. PPK jakinarazi duenez, zerrendako bigarre-na Altsasun Carlos Jimenez Ruiz izanen da. 23 urte ditu eta estreinako hauteskundeak ditu. Marketing ikaslea da Nafarroako Unibertsitatean.

Duela 4 urte PPK Irurtzunen, Uhartan, Etxarrin, Altsasun eta Olatzagutian aurkeztu zituzten zerrendak. Etxarrin lortu zuten ordezkariak soilik: Juan Antonio Extremera Apestegia eta Maria Del Carmen Macias Ruiz. Azkena udal bilkura bakarrean izan da.

## Liburuak erosteko 30 euroko 8 txekeren zozketa

### Irabazleak:

Irati Ondarra (Ziordia)  
Jexux Razkin (Arbizu)  
Noa Lazkoz (Egiarreta)  
Noemí Rodríguez (Etxarri Aranatz)  
Silvia Ovejero (Altsasu)  
Haizea Nicuesa (Lakuntza)  
Ana Goikoetxea (Urdiain)  
Alodia Álvaro (Etxarri Aranatz)

Txekeak liburutegian jaso ahal izanen dituzue

IRAKURRI  
GOZATU  
OPARITU



# Ur biltegia berritzeko garaia heldu da

Dagoena zahartuta eta txikia da eta berri eta handiago batekin ordezkatu dute aurten egingen diren lanekin. Diru-laguntza deialdia izanez gero, argiteria publikoko bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko asmoa du udalak

## IRAÑETA

Urte betean Irañetako Udalaren aurrekontuen diru sarreraren atalak 85.502,88 euroko saltoa egin du eta aurten 327.759,96 euro izanen dira. Gastuen atalari dagokionez, jauzia handiagoa da, 117.495,45 eurokoa, eta guztira aurten Irañetako Udalak 326.914,34n euro gastatuko ditu. Juan Anjel Beraza Gastesi alka-teak aurrekontu hazkundearren arrazoia azaldu digu: “ur biltegi berriagatik da. Duguna txikia eta zaharra dago eta berria eta pixka bat handiagoa egingen dugu”.

Irintarren aspaldiko asmoa beteko da lanak despeditzean.



Irintarrak Txapel Azpi elkartearen ondoan. ARTXIBOA

“Proiektua 2009an egin genuen, baina finantza-krisia tarteko lanak bertan behera gelditu ziren. Aurten egin behar dira lanak. Gutxienez hasi”. Nafarroako Gobernuak lanen deialdiko ple-guak bidaltzeko zain daude Irañetan, lehenbailehen hasi nahiko luketelako. Lanek 225.000 euro inguruko aurrekontua dute eta haietatik foru administrazioak 180.000 euro pagatuko ditu.

Berazak azaldu digunez, argiteria publikoko bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko diru-laguntza deialdia egiten bada, Irañetako Udalak eskaera aurkeztuko du. “Proiektua eginga dugu eta diru-laguntza oso handia izaten da”. Neurri horrekin, alde batetik, argindar kontsumoa txikituko du udalak eta horrek eragin zuzena izanen du ordaindu beharreko fakturan, behera egingen baitu. Besterik, argindarraren ekoizpenean sor daitezkeen kutsadurak murrizten lagunduko du udalak.

Bestetik, udal biltegi bateko atea aldatzea aurreikusten dute aurten. “Biltegiko lanak egin ondoren beste batzuk egiteko aukera izanen dugu”.

## Aterpea

Barga aldean dago iturburua eta ur biltegia eta han dago Basabeko etxea ere. Joan den urtean hara daraman bidea konpondu zuten. “Oso gaizki zegoen. Trenbideko trabesak ordezkatu zituzten eta haiek birrindu ondoren gelditu zen materiala erabili zen bidea ongi jartzeko: ezpondak egin, zoria ongi jarri, soroetarako sarbideak txukun jarri eta Basabeko etxearen ondoan autobusak buelta emateko espazioa prestatu genuen. Ikasleak ekartzen dituen autobus bat heldu bada, buelta non eman izan dezan”. Irañetako Udalaren aspaldiko asmoa da Basabeko etxeari aterpe erabilera ematea. Are gehiago Nafarroako Gobernuak inguruko bost haritz natur monumentu izendatu zituenetik 2009an.

**Altsasu Ekitaldia**

**ERA BAKI.**

Apirilak 23 · 19:00  
Lortia

**ehbildu**





## Guaxe fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 50 euro ordaindu eta 40 euro berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean. 2018ko ziurtagiria eskatu: [admin@guaxe.eus](mailto:admin@guaxe.eus) edo 948 564 275, Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



Astelehenetako Altsasuko kontzentrazioetan parte hartzera deitu zuten.

## Pentsio duinen aldeko aldarrikapena kalean atzera ere

Banakako pentsioen kontra egin eta kapitalari aurre egiteko "aberastasuna hobeto banatzea exijitu" zuten

### ALTSASU

Hauteskunde atarian pentsiodunek manifestazioak deitu zituzten eta haietako bat Altsasun izan zen larunbatean. Kalean 200 bat pertsonak bat egin zuten pentsio duinen aldarrikapenekin. Hala ere, astelehen eguerdiro kontzentrazioak egiten direla Altsasun eta haietan ahal den jende gehien elkartzeari komeni dela gaztigatu zuten.

Manifestazioaren akaberan eskaera zerrenda luzea egin zuten: pentsio sistema publikoa eta haren finantzazioa bermatzea; kalitatezko enplegua sortzea; kotizazioak doitzea; berdintasun fiskala; gizarte segurantzaren auditoretza; pentsio publiko duinak eta nahikoak bermatzea; osasun-koordinaketa eta "medikamentazioa" bertan behera uztea; 2011ko eta 2013ko pentsioen erreformak indargabetzea; lan-erreformak indargabetzea haiek baitira emakumezkoek eta gazteek pairatzen duten prekarietatearen erantzuleak; pentsioen balioaren handitze automatikoa, gutxienez benetako KPIari dagokiona; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa; lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa; soldatetan eta pentsioetan genero-desberdintasuna ezabatzea; lan berdina, soldata berdina; oinarri arautzaileen % 100 emakumezkoen pentsioan; zigortu gabeko alde aurretiko erretiroa, beti ere erabakia langilea ez den beste batek hartzen badu eta eragiten dieten erabakietan pentsiodunek parte hartzea.

### Argudioak

Pentsiodunek gaztigatu zuten, "zaila da ulertzea gizarteak ez ikustea zein egoeratan gauden pentsiodunok gaur egun. Eta zaila da, halaber, gazteek ez ikustea batzuen asmoa dela hemendik gutxira zerbitzu publikoak pribatu bihurtzea". Deitzaileek azaldu zuten pentsioen sistema Gizarte Segurantza sistemaren % 10 besterik ez dela, "sistema horren barruan daude lehen mailako osasun laguntza, mendekotasun-egoeran daudenendako laguntzak eta abar. Gizarte Segurantzak gaur egun 500.000 milioiko zorra du". Pentsioen "eltzetxuan" 69.000 milioi euro daudela azaldu zuten.

Salatu zuten, "sistema kapitalista ondasun publikoen harrapari aseezina da, baita gure aurrezkiarena ere". Europa osoan banakako pentsio planak bultzatu nahi direla nabarmendu zuten. Horri aurre egiteko "aberastasuna hobeto banatzea exijitu" zuten. Salatu zuten, Europa, Espainia eta Nafarroako administrazioek "gero eta gutxiago gastatzen dute gizarte zerbitzuetan eta gero eta gehiago autobiak, bankuak eta abar erreskatatzen". Alderdietako hautagaiei zuzendu zitzaizkien ere: "beharturik daude neurri horiek hartzera, egin ezean herritarren eta gizartearen beharren kontra joan direlako". Orain arte egindako presioak pentsiodunen eskaerak alderdien agendetan sartzea lortu dutela, baina "argi" dute "hurrela jarraitu behar dela".



Langileen mobilizazioa. ARTXIBOA

## Sindikatuaren maiatzaren leheneko hitzorduak

Langileen Eguna dela eta sindikatuek hainbat deialdi egin dituzte maiatzaren 1erako

### SAKANA

ELA sindikatuak *Bizitza da lehenena. Nuestras vidas frente al capital* leloa aukeratu du aurten. ELAko kideak eta zaleak Iruñeko Gurutze plazan, 12:00etan jarri dute manifestaziorako hitzordua.

LAB sindikatuak *Euskal Herria decide. Kapitala hautsi, bizitzari eutsi* leloa aukeratu du maiatzaren 1erako. Iruñeko Gaztelu plazatik abiatuko da manifestazioa 12:00etan.

UGT eta CCOO sindikatuek elkarrekin ospatuko dute Langileen Eguna. Euren afiliatuak eta zaleak maiatzaren leheneko 12:00etan Iruñeko autobus geltoki zaharretik abiatuko den manifestazioan parte hartzera deitu dituzte. *Pertsonak aurretik* leloa aukeratu dute mobilizaziorako, Nafarroako Enpresariaren Konfederazioaren egoitzaren parean bukatuko dena.

Azkenik, CNTk, CGTk, ESKk, Solidarik eta STEILAS sindikatuek deialdi bateratua egin dute Langileen egunerako. Haiek deitutako manifestazioa maiatzaren lehenean, 12:00etan, Iruñeko San Lorenzo plazatik abiatuko da, udaletxe parean bukatzeko. Mobilizazioak *Contra la precariedad, lan erreformak indargabetu* leloa du.





Joan den urteko postu bat. ARTXIBOA

# Lehen sektorea erakusleihoan

Amalorra azoka apirilaren 28an, igandean, izanen da, 10:00etatik aurrera. Etxarriko plazan azokaz aparte, abereen erakusketa, ardi motzaileen eta gazta egite tailerrak, dastatzea eta zaldien heziketa naturalaren erakusketa izanen dira

## ETXARRI ARANATZ

Sakanako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren erakusleihoa da Amalur azoka, aurten zortzigarren edizioa izanen duena. Ibarreko lehen sektoreko ekoizleak biltzen dituen Belardi elkarteak antolatzen du. Begoña Goikoetxea da kideetako bat eta gogorarazi duenez, EHNEko kideak ziren, baina Sakanan biltzea eta elkar ezagutzea erabaki zuten. “Elkartzen hasi ginen eta Amalur azoka behar batetik hasi zen. Sakan-darrei gure egoera erakusteko: ekoizle txikiak garela eta zuzeneko salmenta egiten dugula”.

Goikoetxeak uste du zortzi urtetan “hobera” egin dela: “lan-keta ez da guretako bakarrik izan, jendearendako ere. Sentsibilitate hori sortzea: bertako produktua, ekoizpen eredia... Jendeari, gutxienez, gaia ezaguna egiten zaio”. Helburu hori

lortzeko, hala ere, “lan asko gelditzen da. Honegon beharra dago”.

Amalur azokan egonen diren ekoizle gehienak sakandarrak dira. “Gehienak artzainak. Sakanan ekoizle txikia eta zuzeneko salmenta egiten duten gehienak artzainak direlako”. Haiekin batera egonen dira Arbizuko euskal txerria, Jeingenekoa esnekiak, Urdiaingo ogia eta Le-garbeco barazkiak. Eskaintza osatzeko Oibarreko ardoa, Lakabeko ogia eta ukenduak izanen dira. Belardikoak azokarako olioak ekartzen saiatuko dira ere. Azokarako data “txarra” dela gazti-

**"LURRALDEA ETA IRAUNKORTASUNA" HITZALDIA HILAREN 25EAN, 19:00ETAN, KULTUR ETXEAN**

gatu du Goikoetxeak: “hauteskundeak direla, Aste Santua eta abar dexente kostatu zait ekoizleekin koordinatzea”. 13 edo 14 ekoizle elkartuko direla aurreikusten dute.

Ohi bezala, zein abererekin lan egiten duten aurkezteko erakusketa txiki bat izanen da atzera ere. Gainera, ardiei ilea mozteko eta gazta egiteko tailerrak izanen dira. Euskal txerriaren dastatzea izanen da ere (12:00etan). Aurtengo berritasuna da zaldiekin heziketa naturala egiten duen Vanesa Ugarteren presentzia. “Pottokekin erakustaldi bat eginen du plaza erdian. Gehienbat zaldiak dituen jendeak animaliak tratatzeko pautak batzuk izan dituzan. Gainontzekoendako oso kurioa izanen da. Lasai-lasai, haiekin mugimendu batzuk egiten ditu eta, azkenean, lortzen du zaldiak berak nahi duena

egitea, gutxi gorabehera”. 11:00etatik 12:00etara izanen da.

## Azokez

Zuzeneko salmenta egiten duten ekoizleei jendea ez zaie etxera joaten, beraz, azokak haien erakusleihok bihurtzen dira. “Azoka askok zuten paper hori galdu dute. Ekoizleak desagertzen joan dira, agertu direnak dira beste tokietan erosi eta berriz saltzen dutenak. Guri azoketara joatera eta gure produktuak eta gure lana ezagutaraztea tokatzen zaigu”. Ibarreko egoeraz galdetuta, Goikoetxeak esan duenez, “Sakanan kristoren afizioa dago. Jendeari asko gustatzen zaizkio animaliak, baratza... Ingurua begiratu eta dena dago zaldiz, ardiz... Gehienak ez dira profesionalak. Baina lanetik atera eta afizio hori! Gauza da askotan ez dagoela aukera hori aurrera eramateko. Apustu bat da. Horren alde borrokatu behar da. Sakanakoa beste tokietakoen antzekoa izanen da. Gazte eta heldu. Gazteak afizio horrekin heldu dira. Hori ezin da galdu”.

Belardikoek Etxarrikoarekin batera Irurtzungo azokaren an-

tolakuntzan aritzen dira. Goikoetxeak esan digunez, “Irurtzungoa oso potentea da eta, gainera, eredugarri. Hura bertako abereen erakusleihoa da. Artisauek ere badaude, Amalur azokan ez daudenak. Azkenean, Amalur azoka guk dauzkagun baliabideekin gure neurrira egindako azoka da”. Urtean behin egitearen zergatiak galdetuta, Goikoetxeak esan digunez, “iruditzen zait inflexio puntu bat dela. Elkartzen gara eta gure aldetik balorazioa egiten dugu. Eta bete behar bat: gogoratzea non gauden eta ikusi egin behar zaigula”.

## Hitzaldia

Azokaren atariko, *Lurraldea eta iraunkortasuna. Zein etorkizun nahi dugu?* hitzaldia antolatuta du Belardik. “Sentsibilizazioa, gure egoera ezagutaraztea, egoeraren hausnarketa egitea... Sektoretik atera eta jendaratean gaia zabaltea da helburua”. Bertan parte hartuko dute Gotzone Sestorain, Leitzako ekoizleak eta Mixel Berhokoirigoinek, Euskal Herriko Laborantza Ganberako kidea.

## EUSKARALDIA

BIGARREN EDIZIOAREN PRESTAKUNTZA

## Sakanako ahalduntze saioa

Apirilaren 29an (astelehena)

18:00etan  
Sakanako Mankomunitateko egoitzan (Lakuntzan)







Aralarko santutegia. ARTXIBOA

## Aralarren Aste Santuko ordutegiak zehaztuta

Gaurtik igandera bitartean elizkizun bereziak egingen dira. Aingeruak igandean hasiko du herrietako bira

### UHARTE ARAKIL

Data seinalatuak dira Aste Santukoak kristauen egutegian. Erramu igandean hasi eta Pazko Igandea bitartean Jesusen nekaldia eta piztuera ospatzen dute fededunek. Horregatik, aparteko mugimendua izanen da herrietako elizetan, baita Aralarko santutegian ere. Aralarko Deun Mikel kofradiak jakinarazi duenez, gaur, Ostegun Santuan, 17:00etan meza izanen da santutegian. Bihar, Ostiral Santuan, 17:00etan egingen da elizkizuna. Larunbatean, Pazkoa bezperan, santutegiko elizkizuna 20:00etan izanen da. Igandean, Pazko Egunean, 12:30ean egingen den elizkizunean. Gainera, Aralarko aingeruak herriak bisitatzeko irteera ofiziala egingen du 16:30ean, santutegitik Baraibarrerako bidea eginez (ikus azken orria).

Aralarko aingeruaren irudiak heldu den aste osoan Larraungo eta Araizko herriak bisitatu ondoren, apirilaren 29an, astelehenean, 19:00etan Iruñean sartuko da. Iruñera sartu aurretik, igandean, uharterek aingerua lagun errotatiba egingen dute Oskian. Dagoeneko Aralarko aingeruak makina bat herri bisitatu ditu. Ohi den moduan, lehena Arruazu izan zen, martxoaren 16an. Eta 19an Lakuntzan izan zen.



2018 urteko Bakaikuko maiatza. ARTXIBOA

## Lau zuhaitz zutituko dituzte maiatzaren lehenean

Maiatzak jasoko dituzte etxarriarrek, bakaikuarrek, iturmendiarrek eta ziordiarrek

ETXARRI / BAKAIKU / ITURMENDI / ZIORDIA  
Bargara begiratuta oraindik haitzen urdina eta pagoen nabarra da nagusi. Nahiz eta azken horien artean berde izpiren bat ikusten den. Bi aste falta dira hurrengo hilabetea musteko, maiatzean sartzeko. Eta bi aste horietan Sakanak eskaintzen duen ikuskizunetako bat biziko dugu, hostoa ateratzea. Indarrean datorren hosto berriak egunero kolore desberdin bizi bat hartuko du. Eta esaerak dioen moduan, maiatzerako hostoa haitz gainean egonen da. Hori izanen da azienda mendira igotzeko garaia dela adierazten duena.

Hori gogorarazteko maiatzak jasoko dira ere. Langintza horretan aurrenak bakaikuarrak dira. Maiatzaren 1eko 09:00etan plazan hitzordua jarri eta mendira igoko dira. 11:00etarako gora iritsi eta maiatza jasotzeko aurre-prestatetei ekinen diote. Bakaikuarrak eguerdian ekinen diote pago enborra jasotzeari. Baizak banatzen ditu bakaikuarrak eta etxarriarrak. Azken horiek Hartzabalén jarriko dute maiatza eta 12:30ean hasiko dira jasotzeko lanetan. Aurten, gainera, Arrigorritik gora joaten den bat baino gehiagok berreskuratutako Kostuelgo iturria bisitatu du.

Ziordian bi maiatza jasoko dituzte. Ohi bezala, aurrenekoa txipudian jarriko dute. 10:00etan prestatu eta ordu erdi geroago txara bat zutituko dute. Ondoren, mendate zaharrean barna mendira igo eta eguerdian maiatza jasoko dute. Lan guztiak despe-

dituta, herri bazkaria izanen da. Elkartasun-bazkaria izaten da beti eta aurten ere hala izanen da. Istripu baten ondorioz gurpildun aulkian dagoen Pello Azpiroz laguntzeko izanen da aurtengoa. Euren lanak hasten azkenak herrian bertan lan egin behar dutenak dira, iturmendiarrek, 18:00etan hasiko dira lanean. Haiek dira pago enbor handiena jasotzen dutenak eta, beraz, lanik handienak hartzen dituztenak. Ohi bezala, aurreko egunetan kintoak arduratuko dira basoan pagoa bilatzeaz, mozteaz eta azala kentzeaz. Izan ere, maiatza despedituta, zuhaitza botatzean ateratzen den diru-etekina kintoendako izanen da.



Joan den urtean Ziordian. ARTXIBOA



Sakanatik joandako taldea Parisko udaletxe parean. UTZITAKOIA



Asteartean zuten Notre Dame ikusteko hitzordua. Kanpotik ikusi zuten. UTZITAKOIA

## Notre Dameko sutea bertatik bertara ikusi zuten

Altsasu institutuko DBHko 4. mailako ikasleak eta hiru irakasle Parisen ikas-bidaian izan dira

### SAKANA

Astelehen arratsaldeaz geroztik Paris albiste iturri izan da Notre Dame katedralean izandako suteagatik. Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko 4. mailako ikasleak eta hiru irakasle Parisen ikas-bidaian zeudela gertatu zen sutea. Eurodisneytik bueltatzean Parisera zihoazela sare sozialen bidez sutearen berri jaso zuten. Eta autobusetik Paris gaineko ke beltza ikusteko aukera izan zuten. Eurek asteartean zuten katedrala bisitatzeko asmoa.

Jon Hernan irakasleak azaldu zigunez, ikasleek kezka hartu zuten sutearen albiste, bisita galdu zutelako eta halako historia eta artea duen monumentuaren etorkizunarekin kezkatuta. Tifaout Ballouk ikasleak esan digunez, "pena handia izan da, asteartean joan behar ginelako. Hainbat ikasle ikusi nahi zuten.

Ilusio handia geneukan, baina ezin izan da". Berriz berreraiki-ko duten esperantza azaldu zuen. Eraikina zegoen irlara ere ezin izan zuten sartu. Biek esan zigutenez, astearte eguerdian Polizia eta suhiltzaile ugari zeuden inguruan. Jakin-minak erakarririk jende pila zegoen katedrala ikusten eta argazkiak ateratzen.

Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutukoak ostiral iluntzean abiatu ziren ikas-bidaian eta atzo bueltatu ziren. Lau egunetan Parisen barnako bisita gidatua autobusean, Eiffel dorrea, Louvre museoa, latindar auzoa, Senan barnako bidaia eta Eurodisney ezagutu dituzte. Hura prestatzen hiru hilabete eman dituzte ikasleek. Hura finantzatzeko kamixetak egin eta zozketa baterako txartelak saldu zituzten, besteak beste. Ballouk esan digunez, "ez genuen uste hain ongi pasako genuenik".





Beñat Katarain Beran. Aurreko astean laugarrena izan zen Los Tajos Skyracen. BERA

## Katarain laugarrena eta Beraza lehen beteranoa Beran

**MENDI LASTERKETAK** Berako mendi maratoi erdian Beñat Katarain laugarrena iritsi zen helmugara

Igandean jokatu zen XV. Berako mendi maratoi erdia (21 km eta 2.700 metroko desnibela). 543 korrikalarik hartu zuten irteera eta horietatik 532k proba bukatzea lortu zuten, Larun, Manttale eta Zizkuitz mendiak gainditu eta gero. Ez zen sorpresarik egon eta Oier Ariznabarreta durangarrak hasieratik hartu zuen aurrea, distantzia hartzen hasi zen eta Larunen, bidearen punturik altuenean, 3 minutu baino gehiagoko tartea zuen. Bera izan zen txapelduna (1:39:38), seigarren aldiz jarraian Beran irabaziz. Hala ere, ez zuen lortu berak 2014an ezarritako errekorra (1:37:30) gainditzea. Emakumezkoetan Ainhoa Sanz urretxuarrak sorpresa eman zuen eta proba irabazi zuen (1:56:56), errekorra gaindituz. Proba 2 ordu baino gutxiagotan egitea lortu duen lehenengo emakumea izan da.

Beñat Katarain lakuntzarra laugarrena iritsi zen helmugara (1:44:54), lasterketa polita egin eta gero. Jose Luis Beraza uhar-tearrak ere proba polita egin zuen eta 22. postuan gurutzatu zuen helmuga, probako lehen beteranoa (1:54:46).

### Beñat Katarain laugarrena Los Tajos Skyracen

Apirilaren 7an Los Tajos Skyrace mendi lasterketa jokatu zen Alhaurín el Grandeko mendize-rran barna, Espainiako Koparako baliagarria zen proba, 32 km eta 2.150 metroko desnibel positibokoa. Bertan Euskal Selektzio-ko Beñat Katarain lakuntzarra

aritu zen. Antonio Herrera gaindu zen (2:55:52), eta Beñatek lasterketa bikaina egin zuen: podiumera igotzeko koska batera geratu zen Beñat, laugarrena sartu baitzen (2:59:51).

### Euskal Selektzioari bulkada

Bestalde, astelehenean akordioa sinatu zuten Euskal Mendizale Federazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Selektzioak. Akordio horri esker, Euskal Herriko Mendi Lasterkariaren Selektzioak bere ibilbidean urrats bat egingo du aurrera, eta Euskal Herritik kanpoko hamaika probetan parte hartuko du, Munduko Kopako probak direnak. Helburua Euskal Herriko Mendi Lasterkariaren Selektzioa sustatzea eta indartzea da. Jakina denez, Beñat Katarain lakuntzarra selektzioko kidea da, beste 17 korrikalarirekin batera. Ibilbide berrian Japonian hasiko dira martxan, asteburu honetan.

## Sakandarrak

Beran mendi korrikalari sakandarrak ongi ibili ziren.

Sakandarrak Beran (21 km)	
1. Oier Ariznabarreta	1:39:38
4. Beñat Katarain	1:44:54
22. Jose Luis Beraza	1:54:46
52. Joxeja Maiza	2:02:07
169. Joseba Iza	2:17:03
203. Ibon Ubeda	2:20:33
207. Carlos Mañeru	2:20:44
217. Arkaitz Munariz	2:21:46
265. Asier Leiza	2:26:38
298. Ibai Arrese	2:30:43

# Nafarroako Pistatik 10 domina Sakanara

**PISTA IRRISTAKETA** Maitane Igoak, Iratxe Lapuentek, Unai Villalobosek eta Ioseba Fernandezek 10 domina lortu zituzten, guztira, asteburuan Txantreako patidronoan jokaturako Nafarroako Pista Irristaketa Txapelketan

Asteburuan Txantreako patidromoak Nafarroako Pista Irristaketa Txapelketa hartu zuen, hainbat sakandar lehiatu ziren bertan eta primerako maila eman zuten.

Batetik, Sakana Triatloi Taldeko 10 irristalari lehiatu ziren. Kimuetan, Intza Unamuno Ruiz, Enara Arregi Gomez, Eukene Vazquez Rodriguez, Ane Arregi Larraza eta Maialen Pain Urteaga, eta haurren mailan Maddi Goya Anton, Mara Gomez Zabala, Yeray Goikoetxea Garziandia, Oier Ormazabal Ijurra eta Oinatz Zelaia Gorrotxategi. Eta, bestetik, Iruñeko beste taldeetan lehiatzen diren sakandarrak, haurren mailako Maitane Igoa eta Iratxe Lapuente; junior mailako Ane Lapuente, Ana Rita Correia, Ander Chamorro eta Unai Villalobos; eta senior mailako Unai Baztan eta Ioseba Fernandez. Azken hauetatik lau irristalarik 10 domina ekarri dituzte Sakanara.

Kimuen mailan, Sakana Patin taldeko Intza Unamuno 26.a sailkatu zen sailkapen orokorrean, Maialen Pain 29.a, Enara Arregi 33.a, Ane Arregi 34.a eta Eukene Vazquez 35.a.

Haurren mailan, Lagunak taldean dabilen Maitane Igoa etxarriarrak urrezko domina lortu zuen 200 metroko erlojupekoan (00:21'100 seg.), zilarrezko domina 500 m esprintean eta 5.a izan zen sailkapen orokorrean. Lagunak taldeko Iratxe Lapuente zardiarrak urrezko domina lortu zuen 500 m esprintean (00:49'964 seg.), zilarrezko domina 200 m erlojupekoan eta brontzezkoa 5.000 m kanporaketan. Horretaz gain, lehendabizikoa sailkatu zen sailkapen orokorrean, bere taldekide Uxue Pascual iruindarrarekin puntutara berdinduta. Sakana taldeko Mara Gomez 20.a sailkatu zen sailkapen orokorrean eta Maddi Goya 23.a. Eta gizonezkoen haurren mailan, Sakana taldeko Yeray Goikoetxea



Maitane Igoa, Unai Villalobos eta Iratxe Lapuente, lortutako dominekin. SAKANA PATIN

## IRUÑEKO TALDEETAN DABILTZAN SAKANDARREK 10 DOMINA LORTU ZITUZTEN

12.a sailkatu zen sailkapen orokorrean, Oier Ormazabal 13.a eta Oinatz Zelaia 18.a.

Emakumezkoen jubenilen mailan Lagunak taldeko Anne Lapuente zardiaria 8.a sailkatu zen sailkapen orokorrean eta Lagunak taldeko Ana Rita Correia altsasuarra 13.a sailkatu zen sailkapen orokorrean. Gizonezkoen jubenilen mailan, Lagunak taldeko Unai Villalobos altsasuarra hiru domina lortu zituen: urrezkoa 10.000 puntuko kanporaketan, zilarrezkoa 200 metroko erlojupekoan eta brontzezkoa 10.000 metroko kanporaketan, eta hirugarrena sailkatu zen sailkapen orokorrean. Eta Ander Chamorro altsasuarra 7.a izan zen sailkapen orokorrean.

Bukatzean, gizonezkoen senior mailan Amaya taldeko Unai Baztan altsasuarra seigarrena sailkatu zen sailkapen orokorrean

eta Berriri Ere taldeko Ioseba Fernandez iturmendiarrak 2 urrezko domina lortu zituen, 200 metroko erlojupekoan (00:17'189 seg.) eta 500 metroko sprintean (00:42:456 seg.).

### Sakanan pista baten beharra

Sakana Patin taldeak Sakanan pista multifuntzional baten beharra aldarrikatu dute beste behin, irristaketarako eta beste kirol batzuetarako, pista horren faltagatik Sakanako irristalari askok Iruñeko taldeetara jotzen baitute.



Ander Chamorro lanean. SAKANA PATIN

# Buruz Burukoa: Joanes Bakaikoa lanera

**PILOTA** Buruz Buruko final hamaseirenetan Victor izango du aurkari lehen mailako Buruz Burukoan estreinatuko den Joanes Bakaikoa aurrelari etxarriarrak, larunbatean 17:45ean Ezkarain jokatuko den partidari

Abian da Buruz Buruko 2019ko txapelketa. Aurretikoen ondotik, final hamaseirenen txanda iritsi da. Horrela, larunbatean, apirilaren 20an, Joanes Bakaikoa aurrelari etxarriarrak Victor izango du arerio Ezkarain jokatuko den final hamaseirenetan.

Aurreko urtean Promesen mailako Buruz Burukoa irabazi zuen Joanes Bakaikoa, final oso gogorrean Jon Erasuni 22 eta 17 irabazi eta gero. Horrela, 2. mailako txapela janzteaz gain, aurtun lehen mailako Buruz Burukoan jokatuko txartela lortu zuen Etxarri Aranazko aurrelariak, eta larunbatean debutatuko du lehen mailakoan, Victorren kontra. Etxarriarrak adierazi duenez, ilusio handia du eta oso pozik dago lehen mailako Buruz Burukoan ariko delako, "pilotari guztien ametsa" bere hitzetan. Halaber, kontziente da etxean jokatuko duen Victor arerio oso zaila izango dela. "Oso gogorra da. Partida oso konplikatu da"



Joanes Bakaikoa badaki Victorren kontra partida oso zaila duela aurretik. BAIKO

aurrean, baina ahal dudana guztia emango dut" adierazi du etxarriarrak komunikabideetan. Halaber, fisikoki ongi dagoela gaineratu du, eta entrenamenduetan dituen sentazioak onak direla.

Victorri irabaziz gero, Iker Irribarria izango litzateke bere hurrengo arerioa final zortzirenetan.

Joseba Ezkurdia maiatzaren 4an sartuko da lehian, final laurdenetan.

## Osasuna Magna, 3. postua lortzeko 2 partida prestatzen

**ARETO FUTBOLA** Lehen mailako areto futboleko liga erregularra despeditzeko bi jardunaldi geratzen dira

Lehen mailako areto futboleko liga erregularra despeditzeko bi jardunaldi geratzen dira. Egun, lehen mailako liderra Barça Lassa da (64 puntu), El Pozo Murciari 3 puntu aterata (61 puntu). Movistar Inter hirugarrena da (57 puntu) eta Osasuna Magna Xota laugarrena (55 puntu). Azken bi jardunaldietan irabaziz gero, eta Movistar Interrek punturen bat galduz gero, 3. postuan despedituko luke liga Osasuna Magna Xotak, eta ondoren, play-offetarako final laurdenetan pistako abantaila lortuko luke

talde nafarrak. Beraz, hurrengo bi partidak behar bezala prestatzen dabilta Imanol Arregiren mutilak.

Lehendabiziko partida larunbatean, apirilaren 20an jokatuko du Osasuna Magna Xotak, sailkapenean 15.a den Naturpelt Segoviaren kontra, 18:30ean, Segoviako Pedro Delgado pabilioian. Eta ligako azken partida apirilaren 27an jokatuko dute berdeek etxean, Anaitasuna pabilioian, sailkapenean zortzigarrena den Levanteren kontra, 18:30ean hasiko den partidari.

## SASKIBALOI A CBASKek San Ignacioren kontra jokatuko du berriz

Autonomia Arteko 2. mailako 2. fasean, 1 eta 8 postuen arteko ligaxkan jokatzen ari da Altsasuko CBASK taldea, final laurdenetan, San Ignacioren kontra.

Joaneko partidari San Ignaciok irabazi zion CBASK taldeari, baina larunbatean Zelandi kiroldegian jokatutako itzuliko partidari CBASK primeran arituz eta 68 eta 55 irabazi zion San Ignacioren kontra. Horrela, berdinketa hausteko partida jokatuko beharko dute bi taldeek, apirilaren 27an, 20:00etan, San Ignacio kiroldegian, Iruñean.

Irabazten duen taldea finalerdietara pasako da eta galtzen duena, aldiz, 7 eta 8 postuak erabakitzeko partidari.



Ikastaroan izena ematea zabalik dago.

## ESKALADA Mank-ek eskalada hobekuntza ikastaroa antolatu du

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eskalada hobekuntza ikastaroa antolatu du maiatzaren 24an, 18:00etatik 20:00etara, Lakuntzan (teorikoa) eta maiatzaren 25ean eta 26an, 10:00etatik 18:00etara, Uharteko Arakilen edo Eginon (praktikoa). 14 urtetik gorako gazteei dago zuzendua ikastaroa. Izena ematea zabalik dago maiatzaren 13ra arte, kirol zerbitzuan (948 464 866). Prezioa: 39 euro. Izena ematea taldea bete ahala itxiko da.

Bestalde, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak Gazteen Urteko Eskalada Topaketan antolatu du maiatzaren 10tik 12ra Etxarri Aranatzan, 18-30 urte bitartekoendako. Izena ematea: [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) gunean.

## SAKANAKO TOPAKETAK

### KIMUEN PARTIDUAK

APIRILAREN 28AN, ZIORDIAN

10:00 Urdiain - Lagun Artea 07

11:00 Etxarri Aranatz 1 - Lagun Artea 08A

12:00 Etxarri Aranatz A - Lagun Artea 081

13:00 Etxarri Aranatz A - Tipi Tapa

### Sakanako Futbol Topaketak bueltan

Aste Santuko atsedendia eta gero, Sakanako Futbol Topaketen kimuen mailako 14. jardunaldia jokatuko da Ziardian, 4 partida guztira. Benjaminek maiatzaren 5era arte hartuko dute atsedena.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako klubetako laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidertu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra

## FUTBOL PREFERENTEA

### 27. JARDUNALDIKO EMAITZA

Burlades - Etxarri Aranatz 0-0

### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades 52

12 Etxarri Aranatz 33

### HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 27 EDO 28

Etxarri Aranatz - Huarte (San Donato)

### Puntu garrantzitsua Etxarrirendako

Etxarri Aranatzek Burlades liderraren kontra jokatuko duen asteburuar Burtolan. Asko zuten jokoan bi taldeek. Partida oso lehiatua, aukera ugari sortu zituzten bi taldeek, liderrak bereziki, baina Etxarri ongi eutsi zuen eta puntu banaketarekin despeditu zen partida.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagunak B - Lagun Artea 0-1 (bb)

Altsasu - Urrozterra 0-0

### SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1 Ardoi 16

6 Lagun Artea 6

7 Altsasu 5

### HURRENGO JARDUNALDIA

GAUR, OSTEGUNEAN

17:00 Lagun Artea - Amaya (Zelai Berri)

12:00 Iruntxiki - Altsasu (Beriain)

### Lagunen partida bertan behera

Barañainen, Zubiriak penaltiz sartutako golari esker 0 eta 1 aurreratu zitzaion Lagun Lagunak taldeari, baina arbitroa lesionatu egin zen eta bertan behera geratu zen partida. Bestalde, Altsasuk Urrozterra hartu zuen eta husnako berdinketarekin despeditu zen lehia.

## EMAKUMEEN ERREG.

### 29. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Ardoi Atzeratuta

### SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 77

13 Altsasu 22

### HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAREN 26AN

19:30 Ardoi - Altsasu (El Pinar)

### Altsasu-Ardoi, atzeratua

Erregional mailako emakumezkoetan, Altsasuk 20 punturekin sailkapenean 15.a eta arerio zuzena den Ardoi taldearen kontra jokatuko da Dantzalekun, baina Altsasuk baja asko zituenez partida atzeratzea erabaki zen eta apirilaren 26an jokatuko da.





Andra Mari ikastolako herri kirol taldeetako kideek talde argazkia atera zuten.



Iñigo Aritzako kadeteen mailako proba konbinatuen taldea, txapelduna.

# Andra Marik bi, eta I. Aritzak bat

**HERRI KIROLAK** Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak jokatu ziren igandean Altsasun. Andra Marik kimuen mailako proba konbinatua eta kadete mailako sokatirako txapelak lortu zituen eta Iñigo Aritzak kadete mailako proba konbinatua irabazi zuen

Igandean Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin batera antolatutako Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak jokatu ziren Altsasun. Aurretik, lau jardunaldi jokatu ziren Txantrean, Etxarri Aranatzen, Erratzun eta Berriozarren, eta multzo bakoitzeko lau talde onenak sailkatu ziren Altsasun jokatuako finalerako.

Aurten 11 klub edo elkarteetatik sortutako taldeak lehiatu dira txapelketan, herri kirol proba konbinatuetan 38 talde guztira, kimuen, haurren eta kadeteen mailatan banatuta, eta sokatiran 16 talde guztira, haurren eta kadeteen mailatan banatuta.

Altsasun jendetza bildu zen igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak jarraitzeko. Proba konbinatuak Iortia Kultur Guneko zabalgunean jokatu ziren,

eta sokatirako probak, aldiz, Burunda pilotalekuan. Andra Mari ikastolako taldeak final guztietan jokatzeko sailkatu ziren; aldiz, Iñigo Aritza ikastolako taldeak bi finaletan jokatzeko txartela lortu zuten: kadeteen mailako proba konbinatuko finalean eta kadeteen sokatirako finalean.

## Konbinatuetan Andra Mari kimuen mailako txapelduna eta Iñigo Aritzak kadeteen mailakoa

Proba konbinatuetako finalak oso estuak eta ikusgarriak izan ziren, emozioz betetakoak. Altsasun bildutako zale guztiak

## SEKULAKO GIROA EGON ZEN NAFARROAKO KIROL JOKOEN FINALEAN, ALTSASUN

txaloka, gozatu ederra hartu zuten finalistek. Kimuen mailan Andra Mari 4 taldea izan zen txapelduna (06:57), Berriozar B taldeari 2 segundo eskas aterata (06:59). Andra Mari 6 taldea izan zen hirugarrena (07:16) eta Araxes laugarrena (07:18).

Haurren mailako txapela, berri, Igantzira joan zen (09:03). Lanak bukatzeko Igantzikoek baino 35 segundo gehiago behar izan zituen Andra Mari 3 taldeak (09:38). Berriozar hirugarrena sailkatu zen (10:33) eta Antsoain A laugarrena (10:41). Kadeteen mailan, aldiz, etxeko bi taldeek, Iñigo Aritza ikastolak eta Andra Mari ikastolak, lehia oso estua izan zuten, eta bi segundo eskasengatik Iñigo Aritzak lortu zuen txapela (10:12). Andra Mari bigarrena izan zen (10:14), Araxes hirugarrena (10:42) eta Basarnergi laugarrena (11:04).

## Sokatiran Txantrea eta Andra Mari txapeldun

Sokatirako finalak Burunda pilotalekuan jokatu ziren. Haurren mailan (480 kg) Andra Mari ikastolako 3 talde eta Txantrea sailkatu ziren finala jokatzeko, eta Iruñekoek lortu zuten txapela, Andra Mari 3, Andra Mari 4 eta Andra Mari 2 taldeen aurretik. Hirugarren postua erabakitzeke berdinketa hausteko tiraldia egin behar izan zuten Andra Mari 4 eta Andra Mari 2 taldeek.

Kadete mailako sokatira finalean (540 kg) Andra Mari 2 izan zen txapelduna, merezimendu osoz. Bigarrena Basarnergi sailkatu zen, eta hirugarren postua erabakitzeke berdinketa hausteko tiraldia egin behar izan zuten Antsoainek eta Iñigo Aritzak. Antsoain gailendu zen, eta,

hortaz, Antsoain hirugarrena sailkatu zen eta Iñigo Aritza laugarrena.

Bukaeran, domina eta trofeoak banatu ziren. Sariak banatzen Pablo Urtasun Team Ukyo txirrindularitza talde japoniarreko zuzendaria, Irati Igoa Mulier taldeko futbol jokalaria, Altsasuko Gurasoak taldeko Elena Garisoain eta Nahia Bengoetxea aritu ziren.

Andra Marik bi txapelketa eta Iñigo Aritzak txapelketa bat lortuta, Nafarroako Herri Kirol Jokoen balorazioa primerakoa da. Dena den, jokoan dauden jardunaldietara autobusez herri ezberdinetara joatea, jendea ezagutzea, herri kiroltan parte hartzea eta gaztetxoaren ilusioa, hori da garrantzitsuena gure neska-mutilendako.



Sokatira txapelketa Burunda pilotalekuan jokatu zen.



# Imanol Erbiti eta Igor Arrieta Paris-Roubaixen

**TXIRRINDULARITZA** Imanol Erbitik profesionalen mailako galtzadarrien infernua despeditzea lortu zuen (257 km), 73. postuan, eta Igor Arrieta juniorren proban aritu zen (111 km), Espainiako selekzioarekin, eta 33.a sailkatu zen

Igandean Paris-Roubaix klasikoa jokatu zen, galtzadarrien Iparaldeko infernua, 257ko lasterketa luze, gogor eta gorabeheratsua. Ohikoa denez, mugimendu handiko lasterketa izan zen Paris-Roubaix, erorikoz jositakoa. Azkenean, Quick Step taldeko Philippe Gilbert gailendu zen, ia sei ordu bizikletan gainean egon eta Katusha taldeko Nils Polittekin batera helmugara iritsi eta gero (5:58:02). Movistar Team taldeko Imanol Erbitik proba despeditzea lortu zuen, helmugara 73.a iritsita, 15:47ra.

## Igor Arrieta selekzioarekin

Egun bat lehenago, juniorren mailako Paris-Roubaix jokatu zen, 111 km eta galtzadarrietako 17 eremurekin. Bertan aritu zen Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta uharterra, Espainiako selekzionatzaileak hautatua. Javier Serrano (Madrid), Lander Lartitegi (Euskadi), Juanjo Rosal (Katalunia), Juan Ayuso (Valentzia) eta Carlos Rodriguez (Andaluzia) izan zituen taldekide.

Proba oso gogorra izan zen, erorikoz eta gurpil zulaketaz jositako. AEBetako Michael Garrisonek erasoak jo zuen helmugarako 70 kilometroren faltan eta aurrera egin zuen bakarrik.



Imanol Erbiti Paris-Roubaix galtzadarrien infernuan. MOVISTAR TEAM

Helmugarako 30 kilometro baino lehen tropeletik salto egin zuen talde batek, Garrison harrapatzeko asmoz, eta 10 kilometroren faltan lortu zuten estatubatuarra harrapatzea. Azkenean, esprintean, Van Veenendaal gailendu zen. Igor Arrieta eta bere taldekideek ederki sufritu zuten, baina azkenean, proba osatzea lortu zuten uharterrak eta 33.a sailkatu zen, bere taldekide Lander Lartitegi 40.a eta Javier Serrano 42.a. Gainontzekoek proba utzi behar izan zuten.

## Rural Kutxa onena Urrakin

Igandean Euskaldun Txapelkarako baliagarria den XLIX. Urrakiko Igoera jokatu zen Azpeitian (117 km). Laukote bat iritsi zen batera helmugara, eta esprintean Marc Buades (Telcom Ederlan) gailendu zen (3:08:58). Eneko Aramendia iturmendierra (Goierriko TB-Laboral Kutxa) 14.a izan zen, minutu batera. Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria iturmendierra 86.a sailkatu zen, 11:05era. Rural Kutxa izan zen talde onena.



SDA antolatutako Altsasuko Erramu Trofeoko irteera.

## Unai Aznar eta Jon Gil Altsasuko Erramu Trofeoko podiumean

**TXIRRINDULARITZA** Arriolak irabazi zuen Erramu Trofeoa, Aznarren (Quesos Albeniz) eta Gilen (Lizarte) aurretik.

Igandean, eta eguraldi paregabea lagun, jokatu zen Sociedad Deportiva Alsasuko (SDA) antolatutako junior mailako LX. Erramu Trofeoa (89 km). Proba sarritan pasatu zen Altsasutik, Olaztitik eta Urdiaindik, eta Altamira hirutan igotzeaz gain, bitan Zegamako bidegurutzeraino heldu behar izan ziren txirrindulariak.

Mugimendu askoko lasterketa izan zen Altsasuko, ihesaldiak eta erasoak tarteko. 35 txirrindularik lortu zuten proba despeditzea, Julen Arriola (Arabarrak) eta Unai Aznar (Quesos Albeniz) iritsi ziren batera helmugara, eta lehenagailenduzen esprintean (2:18:55). 2 segundora Lizarte Ermitagaña taldeko Jon Gil laukuntzerra sartu zen. Sakana Group-Aralar taldeko Aitor Alberdi arbizuerra 25.a sartu zen, 1:40ra, eta Quesos Albenizko Iker Mintegi 27.a iritsi zen, 1:45ra.

Taldeka Lizarte Ermitagaña taldea izan zen onena, eta mendiko sailkapena Alejandro Francok irabazi zuen, Jon Gilen aurretik. Tartekako helmuguen saria Ioritz Azanzarendako izan zen (Beola Motor).

## Kadeteak: Beola Trofeoa Hugo Aznarrendako

Larunbatean kadeteen mailako XXX. Beola Trofeoa jokatu zen Atarrabian (53 km). Tropel nagusia elkarrekin iritsi zen helmugara eta esprintean Quesos Albeniz taldeko Hugo Aznar gailendu zen (1:21:17). Sakana Group-Aralarko Martzel Etxeberria iturmendierra podiumera igotzeaz egon zen baina laugarrena sailkatu zen.

Quesos Albenizko Sergio Lopez 10.a sartu zen Atarrabiako helmugara eta Sakana Group-Aralar taldeko Jon Erdozia 12.a, biak irabazlearen denbora berean.

## ATLETISMOA Audikana seigarrena Leitzako Herri Krosean

Larunbatean Leitzako Herri Krosa jokatu zen, kale eta zelaian prestatutako zirkuitu gorabeheratsuan. Proba nagusian (9 km) 51 korrikalari lehiatu ziren eta Aitor Mimenza (32:17) eta Laiane Arrospide (42:02) gailendu ziren. Raul Audikana olaztiarra seigarrena iritsi zen (36:08) eta Egoitz Carrion irurtzundarra bederatzigarrena (36:08).

## Iratxokoak Urepelen

**MENDIA** Irurtzungo Iratxok Ezkabako lhesa egitasmoa burutu berri du. Ezkabara bisita egin zuten, Frankismoko espetze gogorra zuzenean ezagutzeko. Ondoren, bi mendi ibilbide egin zituzten: hasieran Ezkaba eta Leranotz batu zituzten, eta asteburuan Leranotzetik atera eta Saigotz eta Sorogain gainditu eta gero, Urepelera iritsi ziren (28 km).



IRATXO MENDI ELKARTEA



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 19

**ALTSASU** Gazte agenda. Argazkiak editatzen ikastaroa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Una cuestion de genero gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 20

**ALTSASU** Gazte agenda. Liburuaren eguna: orri markatzaileen tailerra. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

## IGANDEA 21

**ALTSASU** Como entrenar a tu dragon familiarteko filmaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Tranpantojoak sukaldatzen. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU** Una cuestion de genero gaurkotasunezko

filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

## ASTELEHENA 22

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 12:00ean, Udaletxe parean.

## ASTEAZKENA 24

**ETXARRI ARANATZ** Aste Santua Etxarrin. Jolas parkea: haurrendako gazteluak, telebista jokoak gazteendako... 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, pilotalekuan.

## OSTEGUNA 25

**URDIAIN** Liburuaren eguna. Slime. 18:00etan, liburutegian.



**ALTSASU** Soinujolearen semea gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

## OSTIRALA 26

**ALTSASU** Gazte agenda. Alphex txapelketa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ALTSASU** Martuteneko kartzelan liburuaren irakurketa dramatizatu Bernardo Atxagarekin eta Jose Kruz Gurrutxagarekin. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**SAKANA** Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Soinujolearen semea gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 27

**IRURTZUN** Sakanako ibilaldi handia. 07:00etan, Iratxo elkartean.

**ZIORDIA** Maravillas gaztetxeagatik epaituak izango dire 4 sakandarrekin elkartasun eguna. 11:00etatik aurrera, Amaraunan.

**ALTSASU** Gazte agenda. Kontzertua. 18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU** lortia antzerki tailerreko Pero que me estas cantando antzezlanaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.



IORTIA KULTUR GUNEA

**ALTSASU** Hirigraf Xabier Idoate artistaren erakusketa. Apirilaren 2tik 28ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



ARGAZKILARIAXXXX

**ALTSASU** Kurdistan, guda baina haratago erakusketa. Apirilaren 30etik maiatzaren 12ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

## ZORION AGURRAK



**Oihane Doral Zelaia**  
Zorionak bihotza,  
dagoeneko urte bat!  
Zure aitona eta  
amona. Maite zaitugu!!



**Jose Javier**  
Zorionak aitona!! Egun  
politta pasatu zure  
egunean! Muxu haundi  
bat familia guztiaren  
partez!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



## IGANDEA 28

**ARBIZU** Udaberriko lore azoka.  
10:30tik 14:30era, plazan.

**ALTSASU** *Lego 2* filma  
famiarietako filmaren  
emanaldia.  
17:00etan, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU** Gazte agenda. FIFA  
txapelketa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**ALTSASU** *Soinujolearen semea*  
gaurkotasunezko filmaren  
emanaldia.  
19:30etan, Iortia kultur gunean.

## ASTELEHENA 29

**ALTSASU** Pentsio duinen alde.  
Nafarroako Pentsionistak  
Martxan eta Otsailaren  
22ko Plataformak deitutako  
elkarretaratzea.  
12:00ean, Udaletxe parean.

**LAKUNTZA** Euskaraldia:  
bigarren edizioaren  
prestakuntza. Sakanako  
ahalduntze saioa.  
18:00etan, Sakanako  
Mankomunitateko egoitza.


## ASTEARTEA 30

### EGURALDIA ASTEBURUAN


Osteguna, 18




Ostirala, 19



Larunbata, 20



Igandea, 21



**ALTSASU** *La mensajera del bosque* liburuaren aurkezpena  
Maite R. Ochotorena  
idazlearekin.  
19:00etan, Haritza tabernan.

## ASTEAZKENA 1



**ETXARRI ARANATZ**  
Berrerabiltzearen artea.  
17:00etatik 19:00etara, kultur  
etxean.

## OSTEGUNA 2

**ETXARRI ARANATZ** *Orain Jon Gurutz, baina nola?* hitzaldi-  
solasaldia. Hizlariak: Fernando  
Arburua, Anais Funosas eta  
Xantán Cachena.  
18:30ean, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ** Gudariak  
direlako, amnistia osoa. AEMren  
Kontzentrazioa.  
19:30ean, plazan.

**ALTSASU** *Una cuestion de genero*  
gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia.  
19:30etan, Iortia kultur gunean.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### ETXEA

**ETXEKO TRESNAK/ SALDU**  
Miele markako arropa-  
garbigailua salgai: gutxi era-  
bilgia eta prezio onean. Interesa-  
tuek 618096204 telefonora  
deitu (Pello). Argazkia ikusteko,  
sartu [www.guaixe.eus/iragarkiak/](http://www.guaixe.eus/iragarkiak/)

### IKASTAROA

**Emozio-adimen tailerra:** Erre-  
sistentzia, ohitura osasungarriak,  
estresaren kudeaketa eta beste  
landuko dira Leticia Graces  
Larrearekin maiatzaren 27an,  
29an eta garagartzaroaren 3an,  
17:00etatik 18:30era. Emaku-  
meendako tailerra da, Arkailgo  
Udalak antolatuta. Maiatzaren  
7ra arte eman daiteke izena  
udaletxean, 948 500 101, 634  
584 223 edo arakilkultura@  
gmail.com.

**Arropari bigarren aukera emateko:** bererabiltzearen  
arte irakatsiko dute: eskuz eta  
makina josten ikasi, norberaren  
josteko makina martxan jarri,  
erabiltzen ez diren arropekin  
diseinu berriak egin, patch work  
teknika... Etxarri Aranazko  
Udalak antolatutako ikastaroa.  
Maiatzeko asteazkenetan,  
17:00etatik 19:00etara, kultur  
etxean. 10 pertsonendako tokia  
dago. Izen ematea, astegunetan  
bulego ordutegian, udaletxe  
bulegoan, 948 460 004 telefo-  
noan edo zerbitzuak@etxarri-  
aranatz.eus e-postan.

**Zure memoria aktibatu:** nor-  
beraren esperientzietatik abia-  
tuta, egoera errealean oinarri-  
tutako praktikekin. Marian  
Zestauk eman du ikastaroa  
maiatzaren 13an eta 20an,  
17:00etatik 19:30era. Emaku-  
meendako tailerra da, Arakilgo  
Udalak antolatuta. Maiatzaren  
7ra arte eman daiteke izena  
udaletxean, 948 500 101, 634  
584 223 edo arakilkultura@  
gmail.com.

### OHARRAK

**Odol-emateak Altsasun:** apirilaren  
23,24 eta 25ean 17:00-20:30  
eta 26an 9:30-13:00. Adona.

**Maravillasen aldeko herri bazkaria:** Iturmendin izanen da,  
maiatzaren 1ean, 14:30ean.  
Txartelak gaztebetan eta ohi-  
ko tabernetan 10 eurotan salgai.  
Iturmendiko gazte asanblada.

**Maravillasekin elkartasun eguna:** Sakanako elkartasun  
eguna apirilaren 27an izanen da,  
Ziordiko Amarauna espazioan.  
14:30ean bazkari beganoa izan-  
en da. Txartelak 10 eurotan  
Lakuntzako Sorginak, Arbizuko  
Arrautseko, Etxarri Aranazko  
Leku Ona eta Altsasuko Lezea  
tabernetan eros daitezke.

**Etxarriko irakurle taldea:** ekai-  
naren 6an, ostegunean,  
19:00etan Etxarri Aranazko libu-  
rutegian elkartuko dira eta Paul  
Auster-en *Sunset Park* liburuz  
aritu dira. Gonbidatuta zaude.

**XALOA TELEBISTAN "Nafarrak Munduan"** saiorako nafar  
abenturazaleen bila dabilta.  
Atzerian bizi izandako gazte zein  
heldu; lan kontuengatik, ikas-  
keta kontuengatik edo dena  
delakoagatik beste lurralde  
batean denbora batez bizitako  
esperientzia kontatzeko Saka-  
nako norbaiten bila dabilta.  
Saioa elkarrizketa dokumentala  
izango da. Harremanetan jarze-  
ko produkzioairuierria@xaloe-  
telebista.eus helbidera idatzi.

**Crowdfunding Kanpaina:** Aritz  
Ganboa de Migel artzain-gazta-  
gile arbazuarraren erronkan  
parte hartzea gonbidatuta zaude.  
Arruazutik Izabaraino men-  
di lasterketa eta gazta trukake-  
ta "Bideak" dokumentalean ja-  
sotzeko kanpaina laguntzeko  
diru bilketa egiten ari dira. In-  
formazioa <http://www.bideak-dokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

**Bidelagun izan nahi?** Mintza-  
kide programaren bidez euska-  
ra praktikatzera elkartzen dira  
hizkuntza ikasten ari direnak eta  
hizketatzeko ohitura dutenak.  
Euskaldun batekin, bidelagun  
batekin aritzen dira. Bidelagun  
izan nahi duzu? 600 482 024  
telefonoan edo AEKren Itsasi  
euskaltegian duzu informazio  
guztia guztia.

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## JAIOTZAK

• **Miriam Alves Correia**, apirilaren 10ean Altsasun

## HERIOTZAK

• **Pedro Lizarraga Garziandia**, apirilaren 9an Unanun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.  
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

### ESKELA

## Andoni Salgado Donlo



"Eguzkiaren parte izateko joan zinen"

### OROIGARRIA



## Angela Ezkerra Belza

'Amiña Angelita'

I.Urteurrena

Zu izan zara gure gidari tentuz gure ondoan

Urteurrenaren meza igandean ospatuko da, apirilaren  
21ean, 12:00etan, Etxarri Aranazko Santa Maria parrokiari

**Etxekuek**

Etxarri Aranatz



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## "Betidanik"

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)





Jose Kruz Gurrutxaga eta Bernardo Atxaga Altsasun egonen dira. UTZITAKOA

## Apirilaren 23, liburuek bizitza hartzen duten eguna

Liburuaren egunaren harira hainbat ekimen antolatuta dituzte liburutegiek. Altsasun Atxaga egonen da

### SAKANA

1616. urteko apirilaren 23an hil ziren Miguel de Cervantes, William Shakespeare eta Inca Garcilaso de la Vega idazleak. Gainera, beste hainbat idazleek jaiotze edo heriotza eguna izan da apirilaren 23a. Historiaren kointzidentzia hau kontuan hartuz, 1995ean Unescok apirilaren 23a Nazioarteko Liburuaren eguna izendatu zuen. Beraz, liburutegietan egun berezia da eta Sakanakoek hainbat ekimen antolatuta dituzte.

Urteurren berezi bat baliatuko du Altsasuko liburutegiak Liburuaren Eguna ospatzeko: *Obabakoak* Bernardo Atxaga idazlearen liburuak Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi zuen 30. urteurrena. Beraz, Atxaga izanen da protagonista Altsasuko liburuaren astean.

Duela 30 urte Bernardo Atxagak *Obabakoak* liburuagatik Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi zuen eta Altsasuko liburutegiak egintza berezi hau ospatu nahi izan du *Obabakoak* liburuak irakurri eta horri buruz hitz egiten. Beraz, apirilaren 23an, 18:00etan, euskaraz, eta 24an, 19:00etan, gaztelaniaz, *Obabakoak* liburuaren inguruan hizketaldi literarioak antolatuta dituzte. Apirilaren 25ean, 18:00etan, haurrendako tailerra izanen da Bernardo Atxagaren *Arratoi txakur maitagarria* liburuaren oinarrituta.

Bernardo Atxaga apirilaren 26an, ostiralean, Altsasun izanen da Jose Kruz Gurrutxaga akto-

rearekin batera. Elkarrekin *Martuteneko kartzelan* idazleak literatura klasikoari buruzko egindako irakurketa dramatizatua egingen dute, 19:00etan. Apirilaren 25, 26 eta 27 egunetako zinema emanaldia Soinujolearen semea izanen da.

## Liburuaren astea Sakanan

### IRURTZUN

- **Apirilak 30** Ipuin kontalaria.

### ARBIZU

- **Apirilak 28** Lore Azokan liburu truke mahaia.

### URDIAIN

- **Apirilak 23, 18:00** Ipuin kateatuak.
- **Apirilak 25, 18:00** Slime tailerra

### ALTSASU

- **Apirilak 23, 18:00** Hizketaldi literarioa euskaraz: *Obabakoak*.
- **Apirilak 24, 19:00** Hizketaldi literarioa gaztelaniaz: *Obabakoak*.
- **Apirilak 25, 18:00** Haurrendako tailerra.
- **Apirilak 26, 19:00** *Martuteneko kartzelan* irakurketa dramatizatua.

# "Ikusten ez den lan handia egin dute"

## BIRJIÑE ALBIRA IORTIAKO ANTZERKI TAILERREKO ZUZENDARIA

Urrian hasi zen lortiaiko antzerki tailerra zortzi parte hartzaileekin. Antzezlanaren taularatzeko unea iritsi da: apirilaren 27an izanen da, 19:30ean, lortia kultur gunean

### Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Eder Goicoechea, Jone Pelaez, Juani Santano, Rober Rodriguez, Isabel Borrega, Bea Ganuza, Sergio Molero eta Alberto Alvaro dira lortiaiko antzerki tailerreko aktoreak. Haiek sortu dute ikasturte bukaeran egingen duten antzezlanaren zuzendaritzapean. Astean bi orduz aritzen dira. Denbora gutxi dela dio Albirak, baina denbora horretan egin dutena "mundiala" da. Apirilaren 27an, 19:30ean, *¡Pero que me estas contando!* egingo dute lortia kultur gunean.

### Tailerrean antzezlan bat prestatzen duzue. Nola da prozesua?

Taldearen arabera da. Abiapuntua pertsonaia dira, hauek nola erlazionatzen diren eta non kokatzen ditugun. Orduan, beraiek proposatzen dutenarekin istorioa osatzen goaz. Prozesua mantsoago doa, baina sormen aldetik askoz aberatsagoa da. Azkenean sortzen dugun istorio honetan guztiek parte hartzen dute eta bakoitzak nahi duen neurrian. Saiatzen gara bakoitzak nahi duena egiten. Denek dute bere momentua eta bere tokia. Beraiek erabaki dute hori egitea, eta lasaitasun horrekin lan egiten dute. Kurso bukaeran antzezlan egitea oso ongi dago, baina beste aldetik presioa handia da. Denbora gehiago beharko genuke beti.

### Beraz, tailerraren helburua antzezlan egitea da?

Bai, eta helburu hori oso ongi dago. Antzerkia jendearen aurrean egiteko da, baina badaude beste helburu batzuk ere eta guztia kudeatzea daukagun denboran batzuetan zaila da. Baina lortzen dugu.

### Zeintzuk dira bete beharreko helburu horiek?

Badaude antzerkigintzarekin lotuak daudenak eta, beste aldetik, oso sozialak direnak. Lehengo antzerkigintzan ematen



lortiaiko antzerki tailerreko aktoreak. UTZITAKOA

den prozesua da: sormena, adierazpena handitzeko trebetasuna, ahotsa, agertoki batean mugitzen eta abar landu. Oinarritzko gauzak dira. Beraiek ez dira oso kontziente, baina lanerako teknika desberdinak erabiltzen ditugu. Sozialki helburuak oso garrantzitsuak dira. Autoestimua kontua dago. Hasieran asko sufritzen dute eta ez direla gauza esaten dute. Bukatzen dutenean gaizki egin dutela esaten dute, baina egin dute. Erlazionatzeko beste modu bat ere bada. Hona sartzen direnean kanpoko gauzak kanpoan uzten dituzte eta hemen disfrutatzen dute. Erlaxatu egiten dira.

### Tailerra praktikoa da, ez?

Dena ariketak dira. Inprobisazioekin lan pila bat egiten dugu. Haiek uneoro sortzen dute. Nik proposatzen diet, baina beraiek eman dutenarekin.

### '¡Pero que me estas contando!' antzezlanaren sortu duzue. Zertaz doa?

Aurtengo lana, nolabait esateko, inoiz baino serioagoa da. Umore puntua ere badauka, bestela hemendik lur jota aterako ginatke. Familia baten bizitza apurtu egiten da alabari eraso egiten diotenean. Nola kontatu eta nola

salatu oso garrantzitsua bihurtzen da. Hortaz, irratiek nola tratatzen duten oso garrantzitsua da. Beraz, irratia bat oso sentsazionalista da, beste batean justua dena justua da eta legala dena legala da, eta hirugarren familiako gizon batek sortzen duen irratia librea dago. Informazioa nola ematen den kontatzen dugu, baita nekari gertatzen zaiona eta horri ematen zaion tratamendua ere lantzen dugu.

### Zer nabarmenduko zenuke?

Batzuetan publikoa garenean ez gara konturatzen horrelako tailer bat aurrean daukagunean horren atzean dagoen lana. Epaitu egiten dugu. Bati esaldi bat ahaztu egiten bazaio, mundu bat egiten dugu. Nola da posible ahaztea ikustera etorri bagara. Emaizta ikusten dugu bakarrik. Aurten inoiz baino gehiago berdin zait ikuskizunaren erdian moztu behar badugu izugarritzko korapiloa sortu delako. Ez dela gertatuko. Baina kasu guztietan orain arte egindako lan pertsonala hain da handia, pena ematen didala publikoak hori guztia ez ikustea. Aurten bereziki ikaragarria izan da bakoitzaren zailtasunei nola egin dieten aurre.



Fernando Garcia Carreroren margolanen erakusketa Josefina Arregin.

## Klinika apaintzen eta laguntzen duten artelan solidarioak

Josefina Arregi klinikan Fernando Garcia Carreroren margolanen erakusketa eta salmenta dago

### ALTSASU

Azken hilabeteak Josefina Arregiko publikora irekita dagoen korridorea erakusketa gela bihurtu da. Koadroetan Beriain mendia, Iruñea, Eunate, Orreaga eta Nafarroako beste hainbat paisaia ikusten dira. Baita loreak eta bodegoiak ere. Fernando Garcia Carrerok oleokin mihisean irudikatutakoa. Garcia Josefina Arregiko pazienteak izan zen eta orain Rosa Artetxe, Garciairen alarguna, margoak eman ditu Altsasuko klinika laguntzeko. Hortaz, asteartetan eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara erakusketa irekita dago eta artelanak erosteko aukera dago.

### Eskertza

Asturiarra sortzez Iruñera bizitzera joan zen Francisco Garcia. Mendi ingeneriari teknikoak zen, baina margotzea "izugarri" gus-tatzen zitzaion, Patxi Goikoetxea Josefina Arregi klinikaren lagunak elkarteko kideak adierazi duenez. Alzheimer izan zuen eta klinikan artatu zuten. "Rosa Arretxe, alarguna, klinikarekin oso eskertuta zegoen eta horregatik etxean zituena senarraren margoak ematea erabaki zuen". Koadro horiekin pazienteak ez dauden klinikaren zonaldean erakusketa egin dute. Erakusketa "edonork" ikus dezake.

Guztira 34 margolan eman ditu Artetxek. Nafarroako paisaiak eta bodegoiak agertzen dira bertan. Oleokin margotutak gehienak. Guztiak salgai daude. Margolanen prezioa 200 eta 1100 euro tartean

dago eta irabazi guztiak Josefina Arregi klinikaren lagunak elkartarako izanen dira. Izan ere, elkarrekin bazkideen eta hainbat entitateen ekarpenekin egiten du aurrera. Baita bazkideek egiten duten auzolanarekin ere.

### Artea

Arte diziplina ezberdinek presentzia handia dute klinikan. Alzheimer eta demenzia gaitzetan espezializatuta dago klinika eta terapien artean musikoterapia eta arte-terapia saioak egin dituzte ere.

Goikoetxeak azaldu duenez, elkarrekin lortzen duen ekarpenekin terapia zehatzak egiteko erabiltzen ohi dute. Esaterako, Erkuengo Ama abesbatzak iaz egindako kontzertu solidarioaren irabaziaz musikoterapiarako instrumentuak erosteko erabili zuten. Bestetik, Garciairen margolanekin lortutakoa "margotzeko" erabili dezaketela esan du Goikoetxeak: "klinika margotu behar da, aprobetxa genezake". Hala ere, elkartera egindako ekarpen guztiak ongi etorriak dira. Izan ere, elkarrekin 2011an sortu zen klinikak laguntza behar izan zuenean.

Erakusketa urte bukaera arte egonen dela esan du Goikoetxeak eta margolan guztiak saltzen badira, Artetxe gehiago emateko prest dagoela esan du. Asteartetan eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara, elkarteko kideak egoten dira margolanak erakusten eta salmentaren inguruan informazioa ematen.

## Lehiaketaren irabazleak

Guaixeren Sakanako inauterien lehenengo argazki lehiaketaren irabazleak, Aritz Duran eta Fernando Moreno, Guaixeko bulegotik pasa ziren haien saria jasotzera: Errigorako kutxa zuri bana.

Bi argazkiak Altsasuko herri-inauterietan egin zituzten eta protagonistak momotxorroak dira.



## Los del Rayo eta lagunak

'Los del Rayo sinfonikoa' kontzertua egin zuten rock taldeak, Haize Berriak bandak eta Erkuengo Ama abesbatzak Lakuntzako kultur etxean. Agertokia handitu behar izan zuten parte hartu zuten 70 musikariak sartzeko. Hiru taldeetako kideekin batera hainbat gonbidatu egon ziren ere. Luis Orduñaren bandarekin azken kontzertua izan zen.



OIHANE PERKATZ



### BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

## Nola aukeratu makillaje base egokia?

*Udan eta neguan berdina erabiltzen al duzu? Eskuan probatzen al duzu erosi baino lehen?*

Makillajearen zati hau oso garrantzitsua da, aurpegian mirariak sor ditzakeelako, baita zure etsai handiena izan ere. Momentu txarra da kanpora ateratzea eta ispilu batean begiratzean aurpegia laranja dugula ikustea, edo gure aurpegi eta lepoaren artean izugarriko kolore aldea dagoela ohartzea. Horregatik, oso garrantzitsua da tonu aproposarekin ematea.

**Hona hemen kode batzuk:**  
**1. Zenbat makillaje base daude?**

- BB CREAM-a: hau egunerokotasunerako oso ona da eta pauso bakar batean prest zaude (eguzkitako babesa duelako, hidratatzeko eta kolorea naturalki batzen du).

- Arina: makillaje honek aurrekoak baino estaldura

maila handiagoa du. Hala ere, hau ez da batere deserosoa.

- Kremazko makillajea: hau azalean sortzen diren orbanak estaltzeko egokia da, kobertura handiago duelako eta gehiago irauten duelako. Soilik egun luzeetarako da gomendagarria!

- Hautsezko makillajea: honekin azala ileturi itxurakoa geratuko zaigu, eta olio asko sortzen duten azalontzat ere oso gomendagarria da, hau kontrolatzeko oso ona delako. Azal helduek hautsezko makillaje mota guztiak ezetsi behar dituzte.

**2. Kolorea:**

Makillajea ez da beltzarantzeko gailu bat!!! Gure azal kolorekoa izan behar du eta hau probatzeko adituari laguntza eskatu behar diogu, aurpegiaren alde batean probatzeko. Izan ere, eskuan probatzeak ez du zentzu handirik, gehien bat ez

duzulako inoiz bertan erabili behar.

Behin aurpegian probatuta, ordu batzuk aurpegian izan behar duzu, zeren batzuk denbora pasa heinean herdoiltzen joaten dira. Beraz, kolorea aldatzen zaie.

**3. Nola jarri:**

- Makillaje esponja: hau makillaje likidoarekin eta hauts makillajearekin erabil daiteke eta akabera naturala lor dezakegu.

- Kabuki brotxa: esponjarekin baino kobertura gehiago lor dezakegu baina natural gelditzen da eta produktuaren erabilpen ona egiten du. Honek hautsentzat balio du, baita kremazko makillajeentzat ere.

- Mofeta brotxa: makillaje arinentzako eta soilik kremazko makillajeentzat.

- Katu mingaina: gainontzekoekin baina kobertura handiagoa lortzen da.

- Eskuak: makillatzaile askorentzat hau da gailurik hoberena, hatz-mamiarekin produktua berotzen delako eta horri esker hau azalean hobe barneratzen delako.





Sutan dantza taldea Burgosko Dance World Cup Spain lehiaketaren koreografiaren une batean. DANCE WORLD CUP SPAIN

# Dantza, afizioa baino gehiago

Altsasuko lau dantzariak Dance World Cup Spain dantza lehiaketan parte hartu dute asteburuan: Saioa Iraizoz dantzaria eta Sutan taldeko Igone Augusto, Leire Bujanda eta Nerea Llamas. Esperientzia "izugarria" izan dela diote laurak

## ALTSASU

Apirilaren 11tik 14ra Dance World Cup Spain dantza lehiaketa jokatu da Burgosen. Espainia mailako dantza lehiaketa da, eta irabazleek mundu mailako DWC lehiaketan parte hartzeko txartela lortzen dute. Hortaz, goi mailako dantza lehiaketa da. Lehenengo aldiz dantzari altsasuarrek parte hartu zuten Burgosko lehiaketan. Saioa Iraizoz dantzaria bakarlarari moduan aritu zen apirilaren 11an eta Sutan dantza taldeak parte hartu zuen igandean, apirilaren 14an. Esperientzia "ikaragarriarekin" gelditzen dira dantzariak.

Espainia mailako lehiaketa batean parte hartzen zuen lehenengo aldia zen Saioa Iraizoz dantzari altsasuarrendako. Bakarrik joaten zen, gainera. Oihu Loreak dantza taldeko kide da, baina oraingoan bakarrik aritu

zen "18 urte baino gehiago nitue ez nintzen Youth sailean sartzen". Hala ere, Oihu Loreak taldeak Bilboko Dantzatu lehiaketan amaitu zuen lehiaketa denboraldia.

## Dantzari bakarlarria

"Gainontzeko lehiaketekin alderatuz dena desberdina zen". Beste maila bat zegoela esan du Iraizozek. Auditorioa eta agertokia, beraz, mailarekin bat egiten zuten eta "izugarri handiak" zirela esan du dantzariak. Hasieran beldurra sentitu zuela onartu du: "baina gero ateratzen zara, zure musika jartzen dute eta ni bakarrik egongo banintz bezala sentitu nintzen. Publikorik gabe, epailerik gabe".

Maila honetako lehiaketa batean bakarlarri moduan parte hartzea "aurrerapauso handia" izan da eta beti gogoratuko duen espe-

rientzia izan da. "Bakarkako dantza bat ez da taldeko dantza bat bezala. Zu bakarrik zaude". Beraz, "gorputzarekin" egindako lanarekin pozik gelditu da Iraizoz. Gainera, hilabete edo hilabete eta erdiz baino ez zuen entseatu. Otsailean edo martxoan parte hartzea erabaki zuen, eta bitartean Oihu Loreak taldearekin hainbat lehiaketan parte hartu du eta taldeko entseuetan aritu da gehien.

## Sutan

"Esperientzia itzela izan da". Igone Augusto, Leire Bujanda eta Nerea Llamas Sutan taldeko kideak dira. Dantza taldea urrian sortu zuten, baina dantza da hiru kideen grina. Taldea sortzea urrats logikoa zen. Gaztea Irratiak antolatzen duen bideo lehiaketan publikoaren saria jaso zuten abenduan eta ordurako



Arima eta Oihu Loreak dantza taldeak irakasleekin. UTZITAKOIA

## Arima bigarren Dantzatu lehiaketan

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako Arima eta Oihu Loreak eta Sutan taldeek Bilboko Dantzatu lehiaketan parte hartu zuten duela bi asteberu. Arimak bigarren saria irabazi zuen.

Burgosko lehiaketan parte hartzea erabaki zuten. "Datorren urterako prestatzeko proba bat izan da. Ez dugu esango probatzera joan garela, lan asko egin dugulako, baina lehenengo aldia zen maila horretako lehiaketa batean eta ez geneukan irabazteko espektatibarik".

Dantza liriko-garaikidea "oso polita" egin zuen Sutan dantza taldeak. Abendu partean hasi ziren lehiaketarako koreografia prestatzen. Agertokira atera zirenean urduri zeuden, izan ere, ezagutzen ez zuten agertoki batean aritzeagatik "inpresio" pixka bat izan zuten. Hala ere, hirurak egoteak "segurtasuna" eman zien: "ongi egingo geneuzaren eta dena ateratzen zitzaigunaren ziurtasuna geneukan". Hortaz, "oso gustura" egon zirela eta "asko disfrutatu" zutelaren esan dute.

Maila handia zegoela nabarmendu dute Sutan taldeko kideek.

"Dantza eskola asko zeuden eta bakoitzak talde eta dantzari asko eramaten zituen hainbat estilotan parte hartzeko. Maila altu batekin topatu ginen, baina espero genuen".

Asteburuan bizitakoarekin gelditzen dira dantzariak. Izan ere, "hiruetatik" ikasi dute. "Oso positiboa izan zen. Lehiaketan ikasi dugu, baita hirurak elkarrekin pasa dugun denboran ere. Barre asko egin dugu".

## Etorkizuna dantzan

Dantzarekin lotuta daude Igone Augusto, Leire Bujanda, Saioa Iraizoz eta Nerea Llamas. Soinketa erritmikoan hasi ziren laurak, Irantzu Gonzalez dantzariak eskolak ematen hasiz arte. Dantza "grina" zela ikusi zuten orduan. Orain, ez dute bizitza irudikatzen dantza egin gabe. Beraz, lauren helburua edo ametsa dantza bizitzea da. Horretarako trebatzen jarraitu behar dutela argi dute.



Saioa Iraizoz dantzaria Burgosko DWC Spain lehiaketan. UTZITAKOIA

# "Une berezia da Mikel Deunaren irudia jaistea"

Mariano Zubiria Galartza urdiaindarrak Pazko-igandean, urtero, Mikel Deuna aingeruaren irudia santutegitik Baraibarrera jaisten du. Ondoren, aingeruak Nafarroako 300 herri baino gehiago bisitatzeko ditu

**Erkuden Ruiz Barroso** URDIAIN

## 1 Noiz hasi zinen Mikel Deuna irudia jaisten?

Aurten 27 urte egingo ditut. Aurretik Tolosako mendizale batek, Seve Peñak, jaisten zuen. Urte askotan jaitsi izan zuen. Urteak pasa ziren eta adinagatik erreleboa pasa zidan.

## 2 Zergatik hartu zenuen zuk ardurua hori?

Urdiaingoa naiz, baina orain Lekunberrin bizi naiz. Mikel Deuna santutegiko garaiko don Inocencio Ayerbe apaizaren meza-laguntzaileak ginen. Bederatzita urterekin igo nintzen hainbat lagunekin batera, eta 17 urtez egon nintzen. Mikel Deunarekin lotuta egon gara, beraz. Lehen ere prozesioan jaisten ginen. Seve zahartzen ari zen eta erreleborako unea iritsi zenean, ni santutegian egona nintzenez, egokitu zitzaidan.

## 3 Zer egiten zenuten?

Lehenengo apaizek meza egiteko laguntza behar zuten. Santutegian familia bat bezala egoten ginen. Urdiaingo eta Uharteko mezalagun gehiago zeuden ere. Bertako lanak egiten genituen.



Mariano Zubiria Galartza Mikel Deuna motxilan sartuta, iaz. NEREA MAZKIARAN

**4 Mikel Deuna zuretzat oso berezia da, are gehiago Pazko egunean santutegitik jaisten duzunean.** Asebetetzea da, bai. Oso gustura egiten dut. Ahal den bitartean hortxe ibiliko naiz. Momentu berezia da Mikel Deuna aingerua jaistea. Ohore bat da. Harro. Gainera, hainbeste jenderekin jaistea oso polita da. Oso gustura jaisten gara.

## 5 Nola jaisten duzu? Zerbait berezia behar da?

Ez da ezer berezirik jakin behar. Bizkarrean lotuta uhal bat jartzen da eta makila uhal horretan sartzen da erosoago eramateko. Mendiz jaisten denez, irristatzeko arriskua handia zen eta joan den urtean irudia motxila batean sartuta jaitsi nuen. Aurten ere motxilan eramateko asmoa dut. Ez dut lehenengoa izan nahi aingerua bota eta hausten duena. Irudiak 13 kilo ditu eta makilarekin 14 kilo pasa.

## 6 Aurretik sustoren bat izan duzue?

Niri oraindik ez zait ezer gertatu, baina Severi behin erori zitzaion lurrera. Eguraldi aldetik denetarik izan dugu. Eguraldia da dagoena eta horrekin jaitsi behar gara.

## 7 Santutegitik jaitsi eta 300 herri bisitatzeko dituzue aingeruak. Herri guztietara eramaten duzue?

Nik aingerua santutegitik Baraibarrera jaisten dut. Lehenengo bidai hori mendiz egiten da betiko tradizioaren oroimenean. Gero kotxez ibiltzen da herriz herri, eta ez dut nik eramaten.

## 8 Zenbat kilometro egiten dituzue?

Kilometrotan ez dakit. Lasai jaisten gara, prozesioan. Jende

asko joaten da. Goitik 16:30ean jaisten hasten gara eta Baraibarrera sarrera 19:00etan izaten da. Beraz, bidean bi ordu eta erdi pasatzen dugu.

## 9 Noizko tradizioa da?

Hori galdera! Egia esateko, ez dakit. Urte asko eta asko. Beti ezagutu dut nik.

## 10 Nola ematen diote ongi etorria Baraibarren?

Baraibarretik 600 bat metrora apaiza, alkatea eta herritarrek ateratzen dira. Hor aldaketa egiten da eta Mikel Deunaren irudia alkateak edo beste pertsona batek hartzen du. Sarrera edo ongi etorria egiten zaio eta Baraibarrera jaisten da prozesioan. Plazan ebanjelioak leitzen dira eta larreen bedeinkazioa egiten da. Gero, parrokiari, irudia adoratzera jendeari ematen zaio. Eta Baraibarren egiten du lehenengo gaua. Hurrengo egunean, astelehenean, meza egiten da eta Larraungo eta Araizko bailaratan herriz herri egiten du lehenengo astea. Nik hurrengo egunean apaiza laguntzen dut eta goizean irudiarekin ibiltzen naiz.

## 11 Erretiratzeko garaia oraindik ez zaizu iritsi.

Ez, oraindik ez. Esaten den bezala indarrak dauden bitartean hor ibiliko naiz. Momentuz ongi nago, sasoiarekin eta gustura. Hasi nintzenetik orain arte, momentuz, urtero jaitsi dut, ez dut inoiz huts egin. Ahal dudan bitartean segituko dut. Ez dakit zenbat denbora izango den; urte pare bat edo hamar. Noski, noizbait erreleboa etorri beharko da. Ez da nik pentsatzeko gauza bat. Ziur norbait egongo dela hartzeko prest.

Udaberriko loreekin  
batera berritu zure  
enpresaren irudia



DISEINU GRAFIKOA  
WEB DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA